




- *Biharko*
- *Zumaiara*
- *boga*

- ZUMAIA 2015/2025 PLANA



Diagnosticoko txostena

2015eko abendua



0. SARRERA	3
0.1. Biztanleriaren bilakaera	3
0.2. Lurraldetasuna.....	6
0.3. Jatorria.....	9
1. LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA INGURUMENA	10
1.1. Hirigintza.....	10
1.2. Mugikortasuna	18
1.3. Ingurumena	21
2. GARAPEN EKONOMIKOA	26
2.1. Zenbait datu ekonomiko	26
2.2. Jarduera ekonomikoak	27
2.3. Enplegua	35
2.4. Udalaren ekonomia eta finantza egoera	38
3. ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK	42
3.1. Gizarte-zerbitzuak	42
3.2. Kultura	50
3.3. Hezkuntza.....	56
3.4. Haur eta gazteak	59
3.5. Kirola.....	62
3.6. Osasuna	67
3.7. Garraioak.....	67
3.8. Segurtasuna	68
3.9. Beste administrazio publiko batzuei atxikitako eraikin hutsak.....	68
4. HERRIGINTZA ETA ELKARBIZITZA.....	70
4.1. Hizkuntza	70
4.2. Aniztasuna	76
4.3. Berdintasuna	79
4.4. Bakegintza eta memoria historikoa	82
4.5. Elkartegintza eta partaidetza	83
5. BIBLIOGRAFIA	86




Gipuzkoako kostaldean, Urola eta Narrondo ibaiek bat egiten duten badian dago Zumaia, Urola Kosta eskualdean. Donostia-Bilbo eta Zumaia-Zumarraga komunikazio ardatzen lotunea da. A-8 autopista eta EuskoTreneko Donostia-Bilbo bidea dira komunikazio sare nagusiak, kostaldeko N-634 errepidearekin batera. Garai bateko kostaldeko Done Jakue bidea ere herritik pasatzen da.

11 km²ko eremua hartzen du Zumaiak. Kantauri itsasoa du mugakide iparraldetik, Deba mendebaldetik, Getaria ekialdetik, eta hegoaldean, berriz, Zestoa (Arroa eta Ibañarrieta auzoak) eta Aizarnazabal. Euskal Kostaldeko Geoparkean kokatua (Mutriku eta Debarekin batera), naturgune aberatseko eremuan dago herria. Europako eta Munduko Geoparkeen Sareko kide da, 2010az geroztik, UNESCOk babestuta egon da eta 2015eko azaroan UNESCOren Munduko Geoparke izendapena eskuratu du. Itsalabarrek haitz-geruzek osatutako formako ikusgarria gordetzen dute, Flysch izenekoa. Kultura, paisaia eta natura balio handiko eremua da, hortaz.

9.734 biztanle ditu Zumaiak, gehienak herrigunean bertan bizi direnak. Herrigunetik kanpo Oikia, Artadi eta Narrondo auzoetan bizi dira herritarrak. Urola Kostako herrien artean bigarren udalerririk populatuena da, Zarautzen ondotik.

0.1. Biztanleriaren bilakaera

Zumaiako biztanleriak hazkunde handia izan du azken urteotan (2004-2014), azkeneko errolda ofizialeko datuak kontuan harturik 8.705 biztanletik 9.734 biztanlera pasa da, % 11,8ko hazkundearekin. Urola Kostan, Aia izan da biztanleria-hazkunde handiena izan duen herria % 19,0rekin eta bigarren Zumaia izan da. Gipuzkoa eta Euskal Autonomi Erkidegoan, epe berean, hazkundea % 4,7koa izan da.




Iturria: Udalmap



Sexuaren arabera aztertuz gero, zumaia emakumeen eta gizonen kopurua orekatua da, biztanleen % 50,4 emakumezkoak eta % 49,6 gizonezkoak izanik.

Ondorengo taulan ikus daiteke Zumaia biztanleriaren eboluzioa sexuaren arabera

2014. urteko biztanleria-piramidea



	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Guztira	8837	8976	9099	9285	9337	9461	9581	9626	9734
Gizonezkoak	4394	4469	4527	4632	4653	4703	4748	4770	4844
Emakumezkoak	4443	4507	4572	4653	4684	4758	4833	4856	4890

Iturria: Zumaia Udaleko Gizarte Zerbitzuen 2014ko memoria

Aurreko taulan ikusten den legez, 2014. urteko biztanleria adinka eta sexuaren arabera banatzen da.



Adinari dagokionez, Zumaian 0-19 urteko biztanleria % 21,4 da (Gipuzkoan % 18,5a eta EAEn % 17,6), 20-64 urteko biztanleria % 62,7 da (Gipuzkoan % 61,7 eta EAEn % 62,6) eta, azkenik, 64 urte baino gehiagoko biztanleria % 16koa da (Gipuzkoan % 19,7 eta EAEn % 19,8). Haur eta gazteen kopurua ikusita, eta herritarren gehiengoa piramidearen erdian kokatzen dela ikusita, esan daiteke Zumaiak biztanleria gaztea duela. Hori horrela, piramidearen oinarria zabaltzeko, esan genezake erdiko jende-multzo hori zahartzarora iristen denean, zaharrekiko dependentzia areagotu egingo dela.

Hala ere, azken urteetan piramidearen oinarria zabaltzen ari delako zantzuak atzeman ditugu, jaiotza-tasan igoera sumatzen delako.

Sexuari dagokionez, diferentzia nagusiak hauek direla esan genezake: 0-9 urte bitartean gizonen kopurua handiagoa dela, baina 65-90 edo gehiagoko adinetik aurrera emakumeak gizonak baino gehiago direla. Beraz, esan daiteke emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino altuagoa dela.

2013an jaiotzak guztira 121 izan ziren Zumaian, 183 Zarautzen, 50 Orion, 25 Getarian eta 31 Aian. Azken 13 urteetan % 39,0ko hazkundea izan du jaiotze-tasak Zumaian, % 5 Gipuzkoan eta % 10 Euskal Autonomi Erkidegoan.






0.2. Lurraldetasuna

Zumaiaiko auzo nagusiak Narrondo, Artadi eta Oikia dira, Zumaiaiko erdiguneaz gain. Biztanle gehienak herriaren erdigunean bizi dira, eta hemen sartzen dira baita Txikierdi eta Santixoko biztanleak.

Narrondo




Auzo txikia da Narrondo, bai tamainari begiratuta, baita biztanle-kopuruari begiratuta ere. Historiari begiratuta, Narrondo ekimen ekonomiko ugariaren sorleku eta aitzindari izan da, horren adibide dira, besteak beste, garai bateko errota eta burdinolak, eta XIX. eta XX. mendeen ezarritako hidraulika-fabrikak ere. Hidraulika-fabrikez gain, ordea, bestelako ekimenen sorleku ere izan da Narrondo, horietako asko auzo txikian jaio eta azkar asko mugak gainditu dituztenak; besteak beste, La Gipuzcoana garraio-enpresa, Korta enpresa...


N-634 errepideak zeharkatzen du Narrondo alderik alde. Mendiz inguratuta, zuloan geratzen da auzoa, mendi-malda pikoan artean. Iparraldeko maldetatik gora eginez, hainbat baserri aurkituko ditugu bertan, gehienak ere Debako lurretan, baina bizimodua beti Zumaia aldera egin dutenak. Azkenik, Narrondo herrigunera gerturatu da, eraiki berri den bidegorriari esker. Narrondo Auzoa bi Udalerrietan zatituta dago. Zati bat Zestoa da eta bestea Zumaia, honek kudeaketa arazoak sortzen ditu. Konpatibilizazio plan bat egin beharko litzateke.



Oikia



Tamainaz eta bertan bizi den biztanle-kopuruagatik, Oikia dugu Zumaiaiko auzo nagusi edo handiena. Gaur egun, 247 biztanle bizi dira auzoan. Errepideak eta Urola ibaiak lotzen ditu Zumaiaiko herrigunera.



Oikiako eta oikiarren lanetan betidanik jarduera ekonomikorik garrantzitsuenak nekazaritza eta abeltzaintza izan dira, eta baserriaren gainean eraikitako eredia izan da nagusi. Halaber, XX. mendeko erdialdetik aurrera batez ere, fabrikak eta enpresak hasi ziren ezartzen eta lantegi horiek eskulana behar zuten bezala, oikiar askok baserriko lanak fabrikako lanaldia bukatu ondorenerako uzten zituzten,



osagarri gisa. Gainera, industrializazioaren eraginez, etxe eta pisu arruntak egin zituzten, plaza inguruan. Egun ere, lanbide nagusia industrian dagoela esan genezake.

Oikia auzoaren beste ezaugarrietako bat da A8 autopista, auzoa alderik alde zeharkatzen duelako.

Oikia poliki-poliki joan da indartzen, babes ofizialeko etxebizitzetxei esker. Are Lagun elkartearen eta plazaren inguruan egiten du jendeak bitzita.


Artadi

Artadi mendixka baten gainean dago. Gune nagusia San Migel eliza da, eta izenak berak dioten bezala, auzoa artadiz inguratua dago. Santiagotik, Kostako errepidetik errepidea hartuta Artadira

iristen gara, eta kaskoko gaina harrapatuta, Gorostiaga aldera jaitsiko gara, edo Oikia aldera.




Auzo txikia da Artadi. 59 lagun bizi dira bertan, gehienak helduak (26 eta 65 urte artekoak, populazioaren % 64,41). Haurren kopurua handia da (% 27,12) eta adinekoak, aldiz, biztanleen % 8,47 baino ez dira.






0.3. Jatorria

Zumaiarretatik Euskal Herrian jaiotakoak % 82,4 dira eta horietatik % 51,9 Zumaiaiko udalerrian jaiotakoak. Zumaiarren gainerako % 17,6a Euskal Herriko mugetatik kanpo jaiotakoa da. Multzo horren barruan, Espainiar Estatukoak dira gehienak (% 11,8). Espainiar Estatutik kanpo jaiotako biztanleria % 5,8koa da, eta jatorrizko herrialde esanguratsuenak Maroko, Errumania eta Kolonbia dira. Horietatik, gehiago dira emakumezkoak (% 54,9) gizonezkoak baino (% 45,1). Guztira 52 estatu ezberdinetan jaiotako herritarrek bizi dira Zumaian.



Jatorri-aniztasunaren bilakaera (2002-2014) estatu nagusien arabera



Iturria: Jatorri-aniztasuna zenbakitan (<http://udal.aztiker.com/zumaia/eu>)

Eskualdeko datuetara joz, Urola Kostan, Espainiar Estatutik kanpo jaiotako biztanleria gehien duen herria Getaria da (% 9,5), ondoren Aizarnazabal (% 9), Orio (% 8,3), Zarautz (% 7,4) eta, azkenik, Aia (% 5).



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

10


1.1. Hirigintza

Azken urteotan hazi egin da Zumaia, handitu, batik bat herrigunea. Etxe berriak eta industrialdeak eraiki dira; etxebizitzak, batez ere, lehen industriak zeuden lekuetan (Alai ingurua, Ondartxo, Ardantzabide, Bonbilloaldea...). Enpresak herrigunetik ateratzeaz gain, lur berriak artifizializatu beharrik ez izatea eragin du neurri horrek. Hala, Estazio/Basusta aldera, Jose Mari Korta Industriagunerantz eta Xey poligono aldera atera dira enpresa horiek. Udal Planak 549.261 m² lur industrial berri aurreikusten zituen, eta horietatik 211.813 m² garatu dira (Korta industrialdekoak), eta Xey industrialdeko 142.250 m² urbanizatu egin dira. Herriarrekin bileretan egin diren ekarpenen artean atera da industriarako lurra eskualde ikuspegiarekin landu beharko litzatekeela.

2014an Zumaiako bizitegiatarako lurzoru urbanizagarria Urola Kostako handiena zen % 25,1ekin (Getaria % 15,2 eta Aian % 11,8).

Babes bereziko udal-azalera aztertzean ere Zumaia da azalera osoaren ehuneko handiena duena Udalmapen arabera, % 34,2rekin (Aian, % 21,8; Getaria, % 29,3; Orion, % 18,4; eta Zarautzen, % 12,3).

Turismoaren aldetik, plan berezi bat aurrera eraman da, eta horren ondorioz, kanpin bat sortu da (pribatua) eta legeak berritu dira epe motzean hotel berri bat sortu ahal izateko.



Iturria: Udalmap



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

11

Datuei begiratuz, 2001-2011 epealdian gehien hazi zen atala lehen erabilerako eraikuntzena izan zen, % 23,9ko hazkundearekin (2.833 etxetik 3.511ra pasa zen).

Etxebizitzak azalaren batz bestekoa Zumaian 90,2m²-koa zen 2011. urtean, Urola Kostako bigarren txikiena izanik (Zarautzen 88,1m²-koa dauka eta). Udalmapien arabera, Zumaia etxebizitzak dentsitatea 53 etxebizitza/Ha-ko zen 2014an (Aian 27,9; Orion 69,7; Zarautzen 76,4 eta Getarian 77,4), udal planaren aurreikuspenaren arabera 71raino igotzea espero zen.

Udal Plan Orokorrak honako etxebizitza aurreikuspenak egin zituen:

	Plana onartu aurretik	Eraitsi beharrekoak	Berriak	Denetara	Dentsitatea etxebizitzak/Ha
Bizitegi zona intentsiboa	3103	43	856	3915	83
Intentsitate ertain/txikiko bizitegi zona	69	--	85	154	15
Urbanizagarria	--	2	500	500	73
Denetara	3171	45	1441	4569	71
Programatutako bizitegiak			1080		

Iturria: Zumaia Antolamenduko Arau Subsidiarioak, 2004

Planak, beraz, 1.441 etxebizitza berri egitea aurreikusten zuen, 45 eraitsi beharrekoak, eta berrikuspen hartan aurreikusten ez ziren 361 etxebizitza zeuden, beraz, denetara, 1.080 etxebizitza. Hala, udalerriaren bizitegi garapenak Urola Kostaren lurralde plan partzialaren gehienezko kuantifikazioa lortzeko behar bezainbeste etxebizitza (1.600) hartu ahal izango lituzke.

Aurreikusitako garapenen artean, Artadi (26 etxebizitza berri), Puntanoeta I (gehienak babes ofizialekoak, 250 denetara) eta Torreaga (252 garatzeko daude) garatu gabe daude, eta Axularko zabalgunek gehiena ere garatu gabe dago (159ko aurreikuspena). Arantzabiden aurreikusitako 234 etxebizitetatik 154 inguru egin dira, eta beraz, 80en bat garatzeko aukera dago.

Ikertalde Grupo Consultor S.A. enpresak, Zumaia Udalak eskatuta, Zumaia **etxebizitza hutsen** ikerketa egin zuen 2008. eta 2009. urteetan. 1.080



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

12

etxebizitza aztertu ziren, inor erroldatuta ez zituzten 246, eta gainerakoak zoriz aukeratuak, Zumaiako etxebizitza parke osoaren adierazgarri zirenak. 280 elkarriketarekin osatu zen azterlana. Arterketa horretan etxebizitzaren % 11 hutsik zeudela ondorioztatu zen; alde batetik, % 6an ez zen inor bizi eta beste % 5 ia ez ziren erabiltzen eguneroko bizitzan. Etxeen % 85,6an norbait bizi zen azterketa egiteko momentuan.

Etxebizitza hutsa da inor erroldatuta ez dagoena eta ur-kontsumorik gabea edo kontsumo txikikoa. Kontsumo txikiko kasuetan inor bizi den (iraunkorki, edo urteko sasoiaren batean) aztertu da. Ia erabiltzen ez direnen multzoan sartu dira hilabete baino gutxiagoz erabili izan diren etxebizitzak. Urtean 20 m³-ko ur-kontsumo azpitik dauden etxeak aztertu dira. Gainerako etxebizitzak okupatutako etxetzat hartu dira. Norbait bizi zen etxeen % 89,5 jabegoan ziren, eta % 9,7 alokairuan.

Eustaten arabera, 2001etik 2010era, hutsik dauden etxeen kopurua % 10,8 hazi da (528tik 696era).

Bestalde, Aztiker enpresak 2010. urtean “**Etxebizitza premia** eta Eskaria Zumaian” ikerketa egin zuen. Azterlanean jasotzen denaren arabera, zumaiaarren % 4,0 (373 herritar) lehen etxebizitza eskuratzeko premian zegoen, gurasoengandik emantzipatzeko edo bikotean bizi ahal izateko, batez ere. Horietako gehienak 20 eta 34 urte bitarteko gazteak ziren. Etxebizitza eskuratzeko behar hori Gipuzkoan baino handiago zen (% 3,5). Halaber, familien % 6,2k (191 familiek) adierazi zuten familia osoak etxebizitza aldatzeko premia zuela, batez ere, egungoa leku txarrean dagoelako, txikiegia delako edota etxebizitza jabetzan eduki nahi zutelako. Gipuzkoako kasuan % 4,5ekoa zen premia hori.

Gipuzkoako familien % 8,5ean zegoen norbait lehen etxebizitza eskuratzeko premia zuena, eta Zumaian kopuru hori % 10ekoa zen.

Aldaketa premiari erantzuteko 191 etxebizitza beharko lirateke, eta lehen etxebizitza premiari erantzuteko 283. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten 373 zumaiaarrek etxebizitza eskuratuz gero, bizitzera norekin joango liratekeen kontuan hartuta, 199 etxebizitza beharko lirateke bakarrik bizitzeko asmoa adierazi zuten gazteentzat, 74 bikotean biziko liratekeenentzat eta 10 lagunekin joango liratekeenentzat. Guztira, hortaz, 283 etxebizitza beharko lirateke eskuratzeko premia osoari erantzuteko. Baina etxebizitza premia zuten 373 horietatik 193 bila zebiltzala erantzun zutela esan zutenez, eta norekin joango liratekeen kontuan hartuta, 113 etxebizitza beharko lirateke bakarrik bizitzeko asmoa adierazi zuten gazteentzat, 37 bikotean biziko liratekeenentzat eta 2 lagunekin joango liratekeenentzat, guztira, beraz, 152.



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

13

Arazorik handiena, baina, prezioarena zen. Aldatzeko premia zuten familien % 34,9k eta eskuratzeko premia zutenen %21,7k baino ezin izango lukete ordaindu orduko merkatu libreko 270.000 eurotik gorako etxebizitzak. Krisiaren eraginez etxebizitzaren prezioak jaitsi badira ere, eros-ahalmena eta kreditua lortzeko aukerak ere neurri handiagoan apaldu dira, eta ondorioz, etxebizitza erosteko beharrean ziren hainbatek ezin izan dute etxerik erosi. Horrek ere eragina izan du eraiki den etxebizitza kopuruan. Horren adibide dira Puntanoetakoak, Torreagakoak eta Artadikoak, adibidez, bertan behera gelditu direnak krisi ekonomikoa dela eta. Etxebizitzak guztien eskura jartzeko ahaleaginean (babes ofizialekoak, tasatuak...), Zumaiako Udalak 2014. urtean babes ofizialeko sei etxebizitza eta 32 kontzertatu ateratzeko gaitasuna izan zuen Ardantzabideko gunean. 38 etxebizitza horiek eraikitzen ari dira eta 2015eko amaierarako bukatuta egotea espero da.

2010eko ekainaren 11n behin betiko onartu zen “**Lokal komertzial** izatetik etxebizitza izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantza”-ren bitartez, lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko baimena ematen zen leku batzuetan. Hala ere, gaur egunera arte soilik 7 lokal komertzial bihurtu dira etxebizitza. Ordenantza horren helburu nagusia da etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen berrerabilera gauzatzea, hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarakoa izatera aldatzeko jarduerak arautuz (GAO 2010/11/10). Gaur-gaurkoz, baina, neurri hori ez da eraginkorra izan.


Honen guztiaren garapena krisialdi ekonomikoarekin etorri da, eta eraikuntzarena izan da, bereziki, gehien pairatu duen sektorea. Gauzak horrela, planak zituen helburuetatik urrun gelditu da. Nolanahi ere, hazkunde handia izan du Zumaia, eta orain arteko ereduaren inguruan hausnarketa beharrezkoa da. Batetik, orain arteko erritmoan haztea ezinezkoa izango delako luzaroan, eta bestetik, natura-baliabideak mugatuak diren neurrian eredu bera ezbaian dagoelako. Horrela bada, herriak, eta ondorioz, biztanleriak, zenbat hazi behar duen zehazteko beharra azpimarratu dute herritarrek eurekin egindako bileretan. Jasangarritasun ikuspegi batekin planifikatu behar da. Aurrerantzean hiri-lurra handitu behar den zailtasuna agertu dute herritarrek; lurzorua % 40 hiri-erabilerarako bideratu ahal izatea gehiegizkotzat jotzen da; eta are gehiago, 500 etxebizitza huts baino gehiago daudenean. Nolanahi ere, eraikitzetik salbu utzi beharko lirateke hainbat gune, beren interes naturala mantentze aldera. Topografia malkartsu horiek eraiki gabe uztearen aldekoak dira herritarrak.

Uholde-arriskua duten eremuak zehaztu ditu Ura Agentziak Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Kudeaketarako Planean, eta horren arabera, Zumaiako urak hartzeko arriskua duten eremuak zehaztu dira. Herriaren zati oso handia uholde-arrisku gorenaren duen 10 urteko itzulketaren epealdiko uholde-arriskuko eremuan dago.



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

14



- 10 urteko itzulketa-epealdiko uholde-arriskua
- 100 urteko itzulketa-epealdiko uholde-arriskua
- 500 urteko itzulketa-epealdiko uholde-arriskua

Badirudi **egungo herriaren neurriarekin** (eta horrek eskaintzen dituen zerbitzu-mailarekin), oro har, gustura daudela herritarrak, eta haztea baino garrantzitsuagoa deritzote egungo izaerari eta nortasunari eustea, etorkizunak ekar ditzakeen aldaketetara egokitze gaitasuna edukiz, beti ere.

Hausnarketak beharretatik abiatuta egin behar dela irizten diote herritarrek batzar horietan: eraikuntza horiek “beharrezkoak” ote diren, eta zein beharri erantzuten dieten. Etheen eskariak detektatu eta ezaugarritu egin behar dira, gaur gaurkoz ez baitzaie eskari horiei erantzunik ematen. Era berean, eskari horietatik udalak ase behar dituenak definitu beharko lirатеke, eskari mota bakoitzak etxebizitza mota ezberdina behar baitu (tamainan, kokalekuan, irisgarritasunean...), eta lehentasun maila ezberdina izan beharko du udal planeamenduan: gazteen etxebizitza premiak, emantzipaziorako; familia berriak osatzeko etxebizitza eskaera; irisgarritasun arazoak dituzten pertsonentzako etxebizitzak; adinduentzako etxebizitzak; egoera berezietan daudenentzako (bananduak,



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

15

langabetuak, beste jatorri batekoak, mugikortasun funtzionala dutenak...); bigarren etxebizitzak...

Halaber, etxebizitza publikoen politika zehaztu behar da, zer egin erabaki eta udalaren menpe egoteko aukerak aztertu.

Gai hauek hurrengo **Arau Subsidiarioak** idatzi aurretik argitu beharrekoak dira, herri eredua eta iparra markatuko baitute. Arau Subsidiario horien berrikusketari dagokionean, zaharkituta gelditu direla eta berritzeko premia dutenaren iritzia erabatekoa da. Berrikusketa horretan herritarren bileretan eskatu da Zumaiaaren paisaiaren antolaketa eta lurralde jasangarriaren helburua jasotzea; Torreagako eremuaren egoeraz hausnarketa egitea, eta esleitu zitzaion bolumenaren arrazoiak desagertu direnez, dimentsioa txikitzea; eta bigarren eta hirugarren sektoreei eskaintzen zaien lekuaren artean oreka egotea. Halaber, eraikinen egoera eta hauen katalogazioa ere landu beharreko arloa dela azpimarratu da bileretan. Gauza zehatzagoei dagokionean, sotoak konputagarri ez izatea eskatu du herritar batek.

Hau guztia, baina, Urola Kosta eskualdeko PTPak dionaren baitan egin beharrekoa da. Orain arte eremu fisikoak baldintzatu du herriaren garapena, eta ibaien arroetan egonkortzen joan da, nahiko modu naturalean. Etorkizunean ere bide horretatik jarraitu beharko dela adierazi da.

Zumaia, UEMAko kide den neurrian, arnasmunea da euskararentzat, eroso bizi ahal izateko eremua. Mankomunitate honek garatu duen **ELE (Eragin Linguistikokoaren Ebaluazioa)** erabili beharko litzateke aurrera begirako garapenak herrian hizkuntzaren ikuspegitik ere izango duten eragina neurtzeko. Azken batean, ingurumenean bezala, prebentzio ikuspegia txertatu nahi da, garatu beharreko eremuak ez eragiteko kalterik gune euskal horien euskarazko gizarte-bizitzan eta kultur garapenean. Hirigintza garapen berri batek Zumaian sortuko lukeen egoera soziolinguistikokoaren aldaketa kontuan hartu beharko litzateke, eragina aurreikusiz, identifikatuz eta ebaluatuz. Eragin linguistikoko hori hizkuntza batentzat positiboa, negatiboa edo neutroa izan daiteke. Eta plangintza horrek euskararen hizkuntza-komunitateari kalterik eragin diezaiokeela aurreikusiz gero, kalte hori murrizteko edo aurre hartzeko neurri zuzentzaileak zehaztea eta abian jartzea aurreikusi beharko litzateke.

Emakumeen% 33k herrian ziurgabetasun-sentsazioa sortzen duten lekuak daudela uste du. Horri aurre egiteko, herrian egiten diren **hirigintzako planifikazioetan genero-ikuspegia** kontuan hartzeko irizpideak adostu beharko dira (Plan Orokorrean zein zehatzetan), Zumaia Berdintasunerako II. Planean jasotzen denaren arabera (adibidez, igogailuak, geralekuak edo antzeko egiturak egiterakoan ikusteko eta ikusia izateko aukera kontuan izanik). Diagnostiko hau idazteko momentuan hiri debekatuaren mapa egiten ari da Berdintasun Arlotik, eta bertatik ateratako ondorioetan oinarrituta, etorkizunean hirigintzako edozein



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

16

interbentziotan kontuan hartu beharreko irizpideak adostu eta ondorioztatuko dira, irisgarritasunaren, segurtasunaren eta berdintasunaren ikuspegiak kontuan izanik. Ondorio horietatik abiatuta, identifikatutako gabeziak konpontzeko interbentzioak egin eta egindako gainerako lanetan adostu ziren irizpideak kontuan hartu beharko dira. Nolanahi ere, herritarrekin egindako saioetan puntu ilun asko dagoela nabarmendu da, argiztapena hobetu behar dela, segurtasun-sentsazioa areagotze aldera.

Landa eremuei dagokionean, ondoko printzipioen arabera jardutea aurreikusten dute Arau Subsidiarioek:

- Lurraldeko puntu guztietan ekologia, paisaia, ekoizpen-, zientzia- eta kultura-balioei eutsiko zaiela bermatzea.
- Beren onarpen gaitasunarekin bateragarriak ez diren jardueren ondorioz kaltetutako elementu eta prozesu naturalak hobetzea, lehengoratzeari eta birgaitzeari.
- Erabili edo nahikoa baliatu gabeko baliabide naturalak balioesten hasteko ekintza ildoak ezartzea.
- Landa garatzen laguntzea, baliabide naturalak ongi antolatuz, horien ustiapen iraunkorra artikulatuz, inplikaturako eragile onarpen eta parte hartzearekin eta horien aisialdirako potentzialtasuna baliatuz.
- Lurraldearen ingurumen egoerari buruzko informazio sistemak ezartzea, abian diren ingurumena babesteko ekintzak zuzendu, zabaldu edo aldatzeko.

Irizpide horiek betetze aldera, partzelak elkartzea sustatzen da, nekazaritza, abeltzaintza eta baso jardueren etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko.

Planak honako lurzoru urbanizaezinak aurreikusten ditu:

- Babes berezia: 341,46 Ha
- Ingurumenaren hobekuntza: 13, 23 Ha
- Basoak: 213,82 Ha
- Landazabaleko nekazaritza eta abeltzaintza: 296,70 Ha
- Akuiferoen babesa: 190,8 Ha

Nolanahi ere, eta arestian aipatu bezala, Arau Subsidiarioak zaharkituak geratu diren neurrian, landa-lurraren erabilerak berriz definitzeko beharra dago, besteren artean, turismorako erabilerak araudi berrietara egokitze (hotelak, landetxeak, eta abar).

Zumaiako Udalak "Bizileku-erabilerarako eraikinetan dauden etxebizitzak **irisgarritasuna** sustatzeko udal-ordenantzari behin betiko onespenez ematea". Ordenantza horrek etxebizitzetan igogailuak eta arrapalak eraiki ahal izateko Udalari eskumena ematen dio, irisgarritasuna bermatze aldera.



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

17

Nolanahi ere, ordenantzak berak ez du lortu irisgarritasun arazo guztiak moldatzea, eta egoera bereziki kezkagarria da alde zaharrean, eta teknikoki muga handiak daude. Bertako adinduen egoera larria da, eta etxetik atera gabe edo beste etxe batera joan beharrean izaten dira. Alde zaharraren etorkizuneko garapenak (merkataritza, tabernak, oinezkoen eremuak, eta abar) garrantzia badu ere, bertan bizi diren adinduek etxebizitzetan dituzten irisgarritasun arazo larriei irtenbidea ematea premiazkoa da, bizitza osoko ingurua abandonatu behar ez dezaten eta arazo ekonomikorik ez sortzeko.

Bestalde, Udalak egina du herrian irisgarritasuna hobetzeko eta oztopo arkitektonikoak gainditzeko diagnostikoa, baina beharrezko prozedura garatu gabe dago, eta beraz, ez dago indarrean. Nolanahi ere, bere horretan indarrean ez egonda ere, erreferentzia gisa erabili izan da dokumentu hori.

Herritarrekin egindako bileretan irisgarritasuna hobetzeko hainbat neurri proposatu dituzte, besteren artean: Larretxorako igogailua, Ardantzabidetik; San Jose kalean igogailua; Odietako etxe berrien igogailua martxan jartzea; Aita Mari-Alai pasabidea (zuhaixkek bidea estutzen dute, horiek kentzea komeni); hondartzetan eta espazio publikoan zein eraikin publikoetan irisgarritasuna bermatzea, San Joseko espaloiak sortzea; Axular eta Patxita Etxezarretari kale izaera ematea, eta abar. Oro har, aipatzen da, herri osoan oinezkoen bideek ez dutela zabalera egokirik.

Garapenaz harago, dagoeneko eraikita dauden hainbat auzo **birgaitzea** eta biziberritzea da erronka handienetakoa, herritarren aburuz. Aipamen berezia merezi dute Alde Zaharrak, San Jose-Odietak, Larretxok eta estazioko auzoak.

Alde Zaharrari dagokionean, Hirigintza Planak Birgaitze Integraleko Plan Berezi baten bidez kudeatzea aurreikusten du. 44.908 m²-ko azalera du, gutxi gorabehera, eta 525 etxebizitza sartzeko lekua, gehienez. Birgaitze hori nola egin definitu eta garatu egin behar da, zerbitzuak eta espazio publikoak zehaztuz, dinamizatuz, etxeen eraberritze plana bultzatuz (etxe berriak proposatu ordez), komentuko plan zuzendaria garatuz, zaharberritzea lehenetsiz (ez soilik alde zaharrean, dagoeneko eraikitako hirigune osoan).

San Jose-Odietan egina dago Plan Berezia, baina garatu gabe dago. Aurreikusitako lanak garatzea eskatu dute herritarrek, eta mantenu-falta ere aipatzen dute (garbiketa, espaloi-falta, pintatze-lanak, hiri-altzariak...).

Estazioko auzoak, aldiz, ez du planik, eta landu beharko da. Irisgarritasun arazoak ditu, eta mareen arabera, itsasmaila azpian dagoen auzoa denez, urak hartzen du maiz. Gainera, Eusko Treneko kotxerak eta inguruko industriaguneak kamioi-trafiko handia eragiten du auzoan.



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

18

Oikian ikastetxe berri eraikitzeke behar den lursaila eskuratu du Udalak, eta orubea Eusko Jaurlaritzari utziko dio, hau izango baita eskola berria eraikitzeaz arduratuko dena. Hezkuntza Sailaren arabera, 2017an hasiko dira lanak.

Auzoetan, oro har, **hiri-altzarien mantenua** hobetzea (argiteri publikoa, bankuak, haur-parkeak, paperontziak...) eta irisgarritasunarekin eta espaloiekin loturiko gaiak azpimarratu izan dira herritarrekin egindako bileretan, garbitasunarekin batera.

1.2. Mugikortasuna

Autoa da nagusi mugikortasunaren ikuspuntutik. Datuak ikusi besterik ez dago, mota bateko edo besteko 5.125 ibilgailu motordun dago Zumaian, horietatik 4.253 autoak dira, 546 motorrak, 159 kamioiak, eta gainerakoak bestelako ibilgailuak (atoinak, autobusak, traktoreak eta beste). Asko areagotu da auto-kopurua Zumaian azken urteotan, eta autoaren erabilera egokiaren gaineko kontzientziazio-lana aspaldi hasi zen. Mugikortasun plana ere badu Zumaia, (diagnosia 2005eko azaroan idatzi zen, eta proposamenak 2006ko ekainekoak dira), baina zaharkitua geratu da, eta eguneratzeko premia dago, azken urteetan aldaketa asko gertatu baita, eta bestelako neurriak hartzeko eta herritarren kontzientzian eragiten jarraitzeko beharra handia baita, oraindik.

Autoari traba gehiago jarri behar zaizkiola uste dute herritar askok, batez ere abiadura moteltzearen bidetik (errepideak estutu, oinezkoen pasabideak indartu, abiadura motelgailuak jarri...).

Autoak herri barruraino sartzen dira, eta horrek kezka eragiten du. Oro har, trafikoaren antolaketa hobeagoa behar dela diote herritarrek, eta dauden puntu beltzak antzeman, eta irtenbideak proposatu. Horien artean, behin eta berriz nabarmentzen da, zubitxikia, horrek duen enbutu efektua dela eta.

Garraio publikoari dagokionez, autobus eta tren bidez komunikatuta dago Zumaia inguruko herriei. Herritarren ustez garraio-zerbitzua ona da, oro har, baina baditu hobetzeko zenbait alderdi, bereziki gaueko ordutegiekin loturik (goizegi bukatzen da zerbitzua, trenean zein autobusean); autobus-geltokien kokapena berrikustea eskatzen dute; eta herrigunea kanpoko auzoekin lotzeko dagoen zerbitzua ez dela nahikoa irizten diote. Bilbo aldera joateko komunikazioak ere ez direla egokiak aipatzen da (soilik trenez komunikatua, 80 km egiteko bi ordu behar dira), eta Donostian arratsaldean lan egiten duen jendearentzat alternatibarik ez dagoela, ordutegia goiz bukatzen delako.



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

19

Hainbat saiakera egin dira azken urteetan garraio publikoa sustatzeko, “Auzobusa” autobus urbanoaren bitartez, baina proba pilotua bertan behera gelditu zen.

Aparkalekuena da herritarren artean kezka eta eztabaida gehien eragiten duen gaietako bat. Herrigunean zein auzoetan (Narrondon, Patxita Etxezarretan, Aita Marin, San Telmo bidean...) aparkatzea zaila izaten da, baina ez dago TAO sistemarik, adibidez (inguruko Kostaldeko beste herri batzuetan badago). Aste bukaeretan eta uda aldean, turismoaren gorakaden ondorioz, gero eta bisitari gehiago jasotzen ditu herriak eta trafiko-dentsitateak eta aparkaleku faltak herriko erdigunean arazoak sortzen ditu. Herrigunetik kanpo dauden aparkalekuen erabilera indartzeak eta horietatik herrigunerako bidea errazteko neurrien inguruko eztabaida irekitzeko eskatzen dute hainbat eragilek. Bereziki nabarmena da kirol portuaren eremua herrigunearekin lotzeko modua aztertzea. Aparkaleku gehiago behar ote den zalantza egiten dute zenbait herritarrek, eta herrigunearen kanpoko aldean daudenak zentroarekin ongi lotzea irtenbide egokia izan daitekeela diote hainbatek. Funtsean, ohiturak aldatu behar direla, eta pedagogia egin behar dela diote. Aparkalekua arautzeak ere lagunduko lukeela uste dute batzuek (OTA edo antzeko sistemen bidez, bizilagunentzat txartel malguarekin). Erabaki honek, baina kontrako iritzi asko ere eragiten du. Kanpoko auzoetan bizi direnek Zumaiara autoz etorri behar izaten dutela eta, horrelako erabaki batek eurengan izango lukeen eraginaz kezka agertu dute, bereziki Oikiakoek.

Auto-karabanentzako guneak ere sortu dira, eta ongi baloratzen diren arren, elkarbizitza ongi antolatzeko eskatzen da.

Oinezkoek dagoeneko zenbait eremu bereganatu dituzte (Beheko plaza, Victoriano Arrate kalea, Amaia Plaza-Ondartxo...); Zumaia, oro har, herri eroso da batetik bestera oinez mugitzeko, distantziak txikiak direlako, batez ere. Halaber, hainbat lan egin dira oztopo arkitektonikoak ezabatzeko edo leuntzeko (igogailuak, arrapalak...), besteak beste Jadarren, Arroa kalean, Alondegian, Ardantzabiden... Hala ere, eremu horretan egiteko asko geratzen da, batez ere aldapan dauden auzoetako irisgarritasuna hobetze aldera. Seinalizazioan, pintaketa-lanetan eta kontzientziazioan ere eragitea eskatu dute herritarrekin bileretan. Oinezko eremu gehiagoren beharra ere azpimarratu dute, nabarmen, eta horretarako bide bakarra dagoela adierazi: autoei lekua kentzea. Bereziki aipatu dira eskola inguruak zaindu beharrekoak direla. Finean, oinezkoei lehentasuna eta protagonismoa ematea eskatzen dute, oinezko ibilbideei jarraikortasuna emanez. Horretan guztian kontuan hartu beharko lirateke, bereziki, zaurgarrien diren pertsonak: haurrak, adinekoak, mugikortasun funtzionala duten pertsonak, zaintza-lanetan jarduten direnak...

Autoen mugikortasunari beste alternatiba bat sortzeko **bizikletaren sustapenean** ere lan egin da. Hala, bidegorriak osatzen joan dira azken urteetan. Bidegorri-



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

20

sare handi samarra eraiki da, herritik Narrondo auzora iristen dena, azken hori Udalaren eta Foru Aldundiaren bitartez lortua. Bide horretan jarraitzeko premia azpimarratu da herritarrekin egindako lan-saioetan. Bereziki agerian utzi da ikastetxeetara ez dagoela bidegorririk (Maria eta Jose), edo daudenak ez direla egokiak (Herri Eskola). Ildo horretan, Oikia auzora eta Korta industrialdera bidegorria egin eta oinezkoentzako lotuneak hobetzea agertu da, edota Otezuritik Narrondo ibaiaren pareko bidegorrira; beti ere, Urola baila osoarekin lotuko diren bidegorriak edukitzeko (Narrondo eta Zestoa arteko zatia bakarrik falta da). Bidegorrien erabilera egokian (abiadura, besteren artean) eragiteko premia ere azpimarratu da.

Horrez gain, Mugi bizikleta alokairu-zerbitzua ezartzen saiatu ziren, baina bertan behera gelditu zen zerbitzua erabiltzaile batzuek ez zutelako egoki erabiltzen. Hori berreskuratzeko saiakera egin beharko litzatekeela esan du herritarren batek bileretan. Baina oro har, bizikletaren erabilera sustatzeko neurriak behar dira, eta horren haritik, bereziki eskatzen da bizikletak uzteko leku aproposak egokitzea, bereziki estalpean eta herriko gune desberdinetan.

Herriaren hazkundearen planifikazioak mugikortasunean duen eragina nabarmendu dute zenbait herritarrek. Batetik, enpresak hirigunetik ateratzeak dituen onurak ezbaian jarri gabe (etxebizitzengandik urrundu, zaratak gutxiagotu...) mugikortasunean horrek duen eragina neurtu beharrekoa ere badela azpimarratu da, inpaktu negatiboa baitu (distantzia handiagoa egin beharra lanera joateko, eta ondorioz, autoz joateko joera igo egiten da). Hala, hurbiltasuna sortzea eta behartutako mugikortasuna murriztea da joeretako bat. Lan-garraioa kudeatu beharko litzatekeela iradoki da bileretan.

Beste adibide bat herrigunetik kanpo planifikatu eta garatutako dentsitate baxuko biziguneei duten inpaktua agerian jarri da, eta horren lekuko Artadi dela adierazi da. Gainera, lana eta erosketak herrigunetik kanpo egin behar direnean, herrigunea hil, eta lotarako hiri bihurtzeko arriskua areagotu egiten da, horrek hurbiltasuna murrizten baitu, eta derrigorrezko mugikortasuna areagotu.



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

21

1.3. Ingurumena

Ingurumenari dagokionez, oso inguru berezi eta aberatsean kokatuta dago Zumaia, eta azken urteetan horiek balioan jartzeko eta babesteko neurri zehatzak eta zorrotzak hartu dira (harraldean edo kostaldean, artadian, Santiagon, Talaimendin, Urolaren itsasadarrean...).

Azken urteetan Arau Ordezkatzaileek **naturaguneak babestu** dituzte, eta naturagune interesgarrienek babes ofiziala dute: Biotopo babestua, Urolako itsas adarra eta Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE). Udalak azterketa bat bultzatu du, ondoren ekintza-plan bat definitzeko bi helburu nagusirekin: ingurumenaren kontserbazioa eta berreskuratzea. Komunitateko Intereseko Toki (KIT) izatetik KBE izatera pasa zeneko tramitazioan, gunea zabaltzeko proposamena egin zuen Udalak, baina Eusko Jaurlaritzak ez zuen onartu. Nolanahi ere, Urolako Plan Berezian Udalak jaso zuen zabaltze hori.

Biotopo Babestuaren kasuan, kudeaketa lana garatu gabe eta ardura norena den ez dago argi. Horretan eragin beharko litzateke, hainbat neurri eta erabilera zehazteko komeni bailitzateke kudeaketa plana garatua edukitzea. Kudeaketa plana idatzita dago, baina onartu gabe, administrazio bakoitzaren eskuduntzak argitu gabe baitaude. Biotopoa Natura2000 sarean sartzeko lan egin beharko litzatekeela aipatu dute herritarrek.

Urolako Plan Berezia onartu zuen Zumaiaiko Udalak 2014aren bukaeran. Zumaiaiko 154 hektareatan du eragina Plan Bereziak, eta ondoko helburuak ditu:

- Dauden intereseko habitatak babestu
- Habitat horiek hartzen dituzten eremuak zabaltu, naturaguneak babesteko xedez
- Kaltetutako eta berritzeko gaitasuna duten guneetako habitatak berreskuratu
- Mehatxatutako flora eta fauna guneak babestu
- Mehatxatutako flora eta fauna berreskuratzeko guneak sortu
- Flora eta fauna inbaditzailea erauzi
- Erregimen hidrologiko naturala mantendu eta bermatu
- Ibai bazterrak berreskuratu eta itsasadarraren erregimen hidrologiko naturalera itzultzea
- Ibai bazterretako landaredia berreskuratu
- Uren kalitatea bermatu
- Dauden nekazaritza-jarduerak mantendu, lurraldearen erabilera jasangarria bultzatuz
- Lurraren kalitatea mantendu, higadura eta kutsatzea saihestuz
- Zuhaitz-hedadura zabaltzea izaera hori duten lurretan



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

22

- Nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinen kudeaketa egokia bermatzea
- Paisaiari dagokionean, kalitate eta zaurgarritasun handieneko eremuak babestu
- Proposatutako jarduerak paisaiak egokitzen direla bermatu
- Izaera bereziko elementu naturalak babestu eta balioan jarri
- Paisaia degradatzeko prozesuak eten
- Degradatutako guneetan paisaia hobetu eta berreskuratu
- Izaera bereziko kultura elementuak babestu eta balioan jarri
- Katalogatutako elementu arkitektonikoak babestu
- Arkeologia-presuntzioko guneak babestu

Helburu horiek guztiak lortzeko araudia ezartzea du xede, beraz, Plan Bereziak, aisialdirako, kirolerako, turismorako edo bestelako jarduerak eta erabilerak arautuz, naturguneetan kalteak saiheste aldera. Era berean, Plan Bereziak herritarrek paisaia horretara sarbidea edukitzea bilatzen du, beti ere naturgune horietan kalterik eragiten ez badu. Horretarako, herritarren partaidetza bilatu nahi da naturguneak babesteko eta kudeatzeko lanean. Natura taldeekin elkarlana, boluntariotza lana eta eskola eremuan jardutea aurreikusten du planak, lurzoruaren eta nekazaritza eta abeltzaintzan jarduten diren lurjabeekin sentsibilizazio-lana egitearekin batera.

Horrezaz gain, **Geoparkearen** kudeaketa ere badago. Geoparkeak eremu zabalagoa hartzen du, Zumaiaz gain, Deba eta Mutrikuko eremua hartzen baitu. Bertan hainbat naturgune biltzen ditu, Zumaiaiko Biotopoa kasu. Geoparkearen kudeaketak hainbat jarduerarekin (nekazaritza eta turismoarekin loturikoak, bereziki), sortzen dituen bateraezintasunak aztertu eta neurriak proposatu behar direla agertu dute herritarrek egindako bileretan.

Naturgune horiek guztiak balioan jartzeko sortu zen orain 10 urte **Algorriko Interpretazio Zentroa**. Ingurumen heziketan lan handia egin du, eta 10 urteotan 10.000 bisitari jaso ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiak hau hobetzeko museografia aurreproiektua prestatu du, berrikuntza lanak behar baititu zentroak. Herritarrek ere eguneratze premia azpimarratu dute egindako bileretan, eta bakarren batek kokapena egokiena den zalantza egin du.

Ingurumen heziketa, nagusiki, Agenda21aren bidez lantzen da. Dokumentua eguneratzeko beharra dago. Ikastetxeetako programa Urola Kostako herri elkargotik kudeatzen da, eta horren bidez, ikasleek programa ugari lantzen dute. Bestelakoan, herrian, aspaldidanik lanean dabilen natur talde bat ere badago.

Hondartzen inguruan, 2010ean ISO 14001 ziurtagiria lortu zen jarduerak arautzeko (Gurutze Gorria, sorosleak, taberna eta abar). Hala ere, hondartzaren kudeaketarako ez dago ordenantzarik (arauak, isunak eta abar) Horiek egiterakoan Urolako Plan Bereziak jasotzen dituenak bertan txertatu beharko



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

23

dira. Santiagoko hondartzari dagokionez, berrantolaketa sakona behar du. Denbora askoren ondoren, Madrilgo Ministerioarekin proiektua zehaztea lortu da, baina oraindik gauzatzea falta da. Hitzarmen honetatik ondorengo lan-lerroak landuko dira: padurak berreskuratu, dunak berreskuratu eta hondartzako zerbitzuak hobetu (taberna hobeto kokatu ahal izateko, hondartzarako sarbidea hobetzeko, sorosle-postua ezartzeko eta abar). Herritarrek premia horiek ere azpimarratu dituzte, eta denboran ere egungo zerbitzuak luzatzeko eskaria egin dute.

Narrondoko erreka-bazterrak berreskuratu, ur-lamina bat sortzea eta Puntanoeta handitzean padura berreskuratzea proposatu dute herritarrek egindako bileretan.

Horiek guztiak kontuan hartuta, **turismoa jasangarritasun** irizpideekin lantzeko beharra azpimarratu dute herritarrek, naturgune horiek guztiak dituzten aukerak agerian jarritz, baina horien errespetua eta zaintza lehenetsiz. Hortaz, turismo-ekintzak eta proiektuak garatzerakoan ingurumen-inpaktua neurtzea eta irizpide horiekin lan egitea eskatzen da. Hala, herri-bideak berreskuratzea, naturagune eta hondartzetan ibilbideak sortzea, eta espazio naturalen arteko loturak berreskuratzea proposatzen da, korridore ekologikoak eta oinezkoak sortuz (Talaimendi, Ibaia, Santiago, Bedua, Narrondo, Basusta, Artadi, Azkixu...

Zumaiako baliabide naturalei esker, Udalak **baratze publikoen** promozioa egiteko asmoa dauka. Hala ere, oraindik ez da martxan jartzeko aukerarik egon, eta herritarrek horiek erabiltzeko eta bultzatzeko eskaria egin dute, aisialdirako ez ezik, bertako produktuak sustatzeko bide bezala ere erabili daitezkeelakoan.

Kutsadurari dagokionez, Udalak hainbat lan eginak ditu kutsadura akustikoaren, luminikoaren... maila identifikatzeko, baina oraindik ere pauso ugari eman behar dira, zehaztasuna falta baita arlo horietan.

Zarataren mapa egina badago ere, tramite administratiboak egin gabe daude, eta egin zenetik legea aldatu denez, 213/2012ra egokitzeko premia du soinu-mapak. Araudia onartzeko prozedura egin eta ekintza-plan bat behar du soinu-kutsaduraren gaiak. Arlo honetan, taberna eta elkarteetan sortzen diren soinuak kontrolatzeko eskaria da, elkarbizitza egokia bilatuz. Industrietako asko herrigunetik atera izanak hobekuntza nabaria eragin duela ere azpimarratu izan da.

Soinuan ez ezik, **airearen kalitatean** ere eragin du industria hauek herrigunetik atera izana. Gainera, beste enpresa batzuei kontrol-arau zorrotzagoak ezarri zaizkie (adibidez, Galvanizados Olaizolari). 2013an, Udalmapeko datuen arabera, airearen kalitatea ona edo onargarria zen urteko egun guztietan, bai Zumaian, baita Urola Kostako beste udaletan ere.




1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

24

Araztegia aspaldi egin eta martxan jarri zen, eta hobekuntza nabarmena izan da ibaiko **ur-kalitatean**. Horrez gain, industrietako kutsadura-isurketen azterketa egin da, horien kopurua murrizteko. Honela, zenbait industriak sortutako ur-kutsadura murriztea lortu da. Baina oraindik ibaira isurketak egiten dira, eta horrek uraren eta lohiaren kalitatean eragin zuzena du, bizidun gutxiago baitago uretan, algen ugaltzea eraginez, besteren artean.

Urola Kostako udal guztietako kontsumorako uraren osasun kalifikazioa "3"-koa zen 2013an. Nolanahi ere, kolektorea bukatu gabe dago, eta horren ondorioz, oraindik hobetzeko alderdia da honakoa. Oikia eta Artadiko **saneamendu-sarea** garatu gabe dago. Bi auzo horietako proiektuak idatzita daude. Lehena Ura Agentziari dagokio garatzea, eta ez du epe jakinik. Artadikoa, aldiz, Udalari dagokio, eta aurreikusia dago, Artadiko etxebizitzaren garapenarekin loturik baitago. Kirol portuaren inguruan ere saneamendu-sarea garatu gabe dago. Erribera kaleko estoldetan dagoen usainarentzako neurriak hartzeko eskaria ere egin dute herritarrek.

Udalerrietako kontsumo elektrikoa aztertzean (udalerriko kontsumo guztiak aintzat hartuta), Zumaia, Getaria eta Aia dira kontsumo altuenak dituzten udalerriak, Orio eta Zarautzekin alderatuta, nabarmen, gainera, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala:



Iturria: Udalmap

Hori ikusita, **energia-kontsumoak** eta hauen eragina murrizte aldera, energia berriztagarriak bultzatu eta garatu beharko liratekeela diote herritarrek, laguntzak eman eta sustatze-lana egitearekin batera. Argiteria-publikoa eguneratzea da proposatzen den neurrietako bat, energia eraginkortasunean hobetzeko.



1. Lurralde-antolamendua eta ingurumena

25

Hondakinei dagokienez, Udalak erabakia hartuta dauka hondakinak biltzeko sistema aldatzeko, Europatik datozen aginduak beteaz. “Hondakinen Mahaiak hartutako adostasun-bidearen irakurketa” akordioa sinatu zen Zumaiaiko Hondakinen Mahaian, non alderdi politikoek (Bildu, EAJ-PNV, PSE-EE eta Aralar), “Birziklapena bai, Atez Atekorik Ez” plataformak, Zero Zabor Zumaian Taldeak eta Natur Taldeak parte hartu zuten bertan. Mahai horretan zaborrak egoki sailkatzen eta botatzen direla ziurtatzeko sistema sortu eta ezarri nahi zen. Guztiok bat eginik, txip-txartel eta kodedun barra poltsekin edukiontzi bidezko gaikako bilketa pertsonalizatuaren sistema teknikoki eta ekonomikoki aztertzea adostu da. Plan hori aurrera eramateko, bideragarritasun-plan bat egin behar da, planeko asmoak aurrera eraman ahal izateko eta horri segimendua egin ahal izateko. Hala ere, lehenago aipatu den bezala, ez da lortu gauzatzea. Herriarrek gai horri lehentasunez heltzea eskatu dute.

Auzo-konposta egiteko bideak jarri badira ere, orain arte egindako ahalegina ez dela nahikoa diote herriarrek, eta horretan sakondu beharko litzatekeela. Gainera, kudeaketa-sistemaren inguruan kontzientziazio eta formakuntza etengabekoa izan behar duela azaldu da bileretan, eta enpresei, tabernei eta elkarteei hondakinen kontrola areagotzeko eskatu dute. Zaborrontzien inguruen txukuntzea eta garbitzea ere hobetu beharreko alderdi bezala nabarmendu dute, arratoiak eta usain txarrak ekidite aldera, besteren artean.

Etxeko animaliei dagokionean, hauek edukitzeko eta babesteko arautzen duen udal-ordenantza egin da, gerta daitezkeen arazo eta istripuak behar bezala araututa egoteko eta, oro har, eguneroko kudeaketa hobea izan dadin.

Azkenik, **Udal kudeaketan** iraunkortasun irizpideak ez dira txertatzen, eta horretan udalak eredugarria izan beharko lukeela uste dute herriarrek.



2.1. Zenbait datu ekonomikoa

Herri aberatsa da Zumaia. Norbanako Barne Produktu Gordina 31.988 €-koa da (Gipuzkoan, batez bestekoa, 30.368 €-koa da, eta EAEkoa 29.988 €-koa).

Urola Kostako herriein alderatzerakoan, Aia 35.479€-rekin eta Getaria 34.436€-rekin Zumaiaren gainetik kokatuak daude. Aurreko bost urteetako garapena aztertuz gero, Zumaiako BPGaren balioa mantendu da (Aiak % 26,9ko jaitziera jasan du, Getariak % 27,4ko igoera eta Zumaiak % 2,9ko jaitziera). Bestalde, Zarautzek eta Oriok % 31,6eko eta % 50,1eko igoerak izan dituzte 2005etik 2010era baina, 25.474€ eta 21.290€rekin Zumaiako balioetatik urrun daude.

746 establezimendu zeuden 2008an eta 678 daude 2014ean:

	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Jarduera guztira	678	678	693	684	725	739	746
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	24	28	30	-	-	-	-
Industria, energia eta saneamendua	72	72	80	82	90	90	89
Eraikuntza.	93	91	88	95	114	112	106
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	258	261	261	262	276	287	295
Informazio eta komunikazioak	9	8	7	7	9	11	11
Finantza eta aseguru jarduerak	20	20	21	20	20	20	19
Higiezen aktibitateak	10	12	14	18	18	20	18
Jarduera profesional eta laguntzaileak	81	77	77	82	83	81	80
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	53	50	52	53	54	55	55
Arteetako eta bestelako jarduerak	58	59	63	65	61	63	67

Iturria: Eustat

Establezimenduen tamainari begira, batzbestez handiagoak dira Zumaian (tamaina handiko enpresak badaude herrian) eta alde nahiko nabarmena dago eskualdeko datuekin konparatuta.

	EAE	Gipuzkoa	Urola Kosta	Zumaia
Establezimenduen batzbesteko tamaina (2014)	4,80	4,66	3,99	4,92

Iturria: Eustat

Urola Kostako Udal Elkarteak egindako enpresa garrantzitsuenen zerrendan Zumaiarrak (letra lodiz) dira nagusi:



METALGINTZA-MEKANIKA

Industrias Auxiliares, S.A.U.

KSB Itur Spain, S.A.

Industrias Lagun-Artea, S.L.

Balenciaga, S.A.

Arregui Buzones y Sistemas de Seguridad, S.L.

Galvanizados Olaizola, S.A.

Estampaciones Gipuzkoa, S.A.

Mendiaraiz, S.L.

Korta, S.A.

Guascor, S.A.

GKN Driveline Zumaia, S.A.

EGURRA ETA ALTZARIAK

Muebles Treku, S.A.

Xey Corporación Empresarial, S.L.

Enrique Keller, S.A.

ELIKAGAIGINTZA

Conservas Ortiz, S.A.

Artadi Alimentación, S.L.

ERAIKUNTZA

Construcciones Amenabar, S.A.

ZERBITZUAK

Transportes Indo, S.A.

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarte

2.2. Jarduera ekonomikoak

Zumaiako ekonomia aztertzeko garaian, sektore ezberdinen egoerak garrantzi handia dauka. 1996 eta 2012 bitarteko datu seriea dago eskuragarri eta denbora honetan lehen eta bigarren sektoreek pisua galdu dute eraikuntzaren alde batez ere eta, neurri txikiago batean, hirugarren sektoreak ere indarra irabazi du.

	1996	2000	2005	2008	2010	2012
Balio erantsi gordina jardueraka Zumaian (%)	100%	100%	100%	100%	100%	100%
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	0,8%	0,7%	0,4%	0,4%	0,3%	0,3%
Industria eta energia	57,7%	55,8%	49,9%	51,0%	55,5%	49,3%
Eraikuntza	5,7%	7,0%	11,4%	11,2%	7,4%	13,9%
Zerbitzuak	35,8%	36,5%	38,3%	37,4%	36,8%	36,5%

Iturria: Eustat



2012ko azken errolda ofizialeko datuak kontuan hartuta, Zumaiaiko industriak indar handia du balio erantsia aztertzean, Urola Kosta, Gipuzkoa eta Euskal Autonomi Erkidegoko datuekin konparatuz. Zumaiaiko balio erantsiaren erdia (%49,3) industrietatik dator eta EAEn ordea laurdena besterik ez (%24,2).


Urola Kostako Udal Elkarteak hiru jarduera estrategiko zehaztu ditu eskualderako, hirurak industria jarduerak eta Zumaiaarako esanguratsuak.

	Metalgintza-Mekanika	Elikagaigintza	Altzaria-Egurra
Lehiakortasun faktoreak	- Moldatzeko gaitasuna, malgutasuna ekoizpen prozesuetan eta ezagutza aniztasuna. - I+G bidez produktu propioen garapena. - Balio kateen integrazioa. - Teknologian inbertsio maila altua. - Hornitzaileen garapena. - Nazioartekoratzea.	- Kalitatean oinarritutako lehiakortasuna. - Artisautza. - produktu aniztasuna. - Tamaina, dimentsioa. - Marka. - Kudeaketaren profesionaltasun maila.	- Hornitzaileekiko negoziazio boterea. - Tendentzia berrietara moldatzeko gaitasuna. - Tamaina, dimentsioa. - SW bidezko diseinu, konfigurazio eta salmenta.
Mugak	- Pertsonen prestakuntza maila. - Finantzaketa iturriak. - Lan kostu altuak. - Hornitzaile espezializatu eta menpekoak.	- Pertsonen prestakuntza maila. - Artisauegiak. - Lehengaien prezioetan aldaketak. - Lehengaiak kanpotik ekarri beharra.	- Pertsonen prestakuntza maila. - Merkatuaren atzerakada. - Polarizazioa, gehiegizko espezializazioa. - Beste negozio ereduarekin lehiatzeko zailtasuna (Ikea).

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteak

Azken urteetan, Urola Kostako Udal Elkarteak jarduera hauetako eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko planak garatu ditu.


Zerbitzuekin industriaren aurkakoa gertatzen da, hauen pisua Zumaian txikiagoa da. % 68 EAEn, eta % 63,8 Gipuzkoan, % 54,7 Urola Kostan eta % 36,5 Zumaian. Turismoaren gorakadak ostalaritza eta komertzioan eragin positiboa izan du. Merkatarien arteko dinamismo eta elkarlanak gora egin du azken urteetan, kalitatearen eta zerbitzuaren aldeko apustua egin da eta pixkanaka herria eraldatzen ari da zentzu honetan, aldaketari modu egokian erantzunez.



Iturria: Eustat

Urola Kostako herriak aztertzerako garaian ezberdintasunak badaude. Aia da zentzu honetan Zumaiaren jardura banaketa eredu antzekoena duena, bigarren sektorearen % 46,7eko pisuarekin.


Lehen sektoreak oso pisu txikia du herrian. Urkome da Urola Kostako Landa Garapeneko Elkartea eta lan lerro ezberdinak ditu abian eskualdean nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza garatzeko, baina belaunaldi aldaketa mehatxu handi bezala ikusten da. Egungo baserritarrek jardura uztean ez dute atzetik jarraituko dien gazterik. Krisiak bultzatuta nekazaritza mundura gerturatu diren gazteak egon dira, baina egoera ekonomikoaren eta lan merkatuaren hobekuntzarekin, emandako pausoak arriskuan daude.



Iturria: Eustat

Bestalde, 2011ko datuak kontuan edukita, biztanleriaren okupazioa sektoreka aintzat hartzerakoan, Urola Kostako herrien arteko ezberdintasunak ez dira aurrekoak bezain nabarmenak, hurrengo irudian ikusten den bezala.


Sektoreen egoera - Biztanleriaren okupazioa Urola Kostan



Iturria: Udalmap

Inguruko herriekin konparatuz turismoak pisu txikiagoa izan du Zumaian, baina azkenaldian izandako gorakada aukera on bat bezala ikusten da industria jardueraren osagarri izateko. Turismoari dagokionez, biztanleko, herriak dituen turismorako ostatu-plazak, eskualdeko herriekiko oso azpitik dago Zumaia. 600 pertsona ingururentzako lekua daukan kanpin berri bat ireki berria da 2015ean egoera honi aurre egin eta turisten eskaerari erantzun ahal izateko. 16 logeladun hotel berri bat ere irekitzekotan da hemendik bi urterako epean. Konbentua aterpetxe bihurtzeko ideia ere aspalditik dabil airean, aurreko atalean aipatu den bezala.

Turismo ostatu plazak




Iturria: Udalmap



2002an ireki zen Zumaiako turismo bulegoa eta orduz geroztik lan asko egin da bisita gidatuak eskaini, Algorri interpretazio zentroa kudeatu eta Zumaiako baliabide turistikoak herrian bertan eta kanpoan ezagutarazten. Turismoa, hezkuntza eta kultura uztartzeko apustua egin da. Geoparkea da Zumaiak, Deba eta Mutrikurekin batera, duen turismorako baliabide nagusia. Zumaia nazioarte mailako geologia ikerketa gune da aspalditik Flysch-a dela eta, baina 2010ean geoparkeen nazioarteko sarean sartzeak ikaragarritzko bultzakada eman dio. Kalitatezko turismoarekin erabat lotuta dagoen baliabidea da eta azken urteetan Zumaia mundu mailan ezagutzera emateko balio izan du. Ildo honetatik segi eta Geoparkea ardatz gisa hartuta turismo jasangarria bultzatzeko aukera ederra du herriak. 2016ko urtarrilerako amaitua egotea espero den Geoparkeko estrategia plangintza prozesua abian da.

Bisitari kopuruak asko egin du gora azken urteetan, Estatuko eta atzerriko bisitarien eraginez, batez ere.



Iturria: Zumaiako turismo bulegoa

** 2015eko datuak 2015/12/02rartekoak dira*

2013-2014ko Zumaiarren datuetan eragina du Mugitxetaren kudeaketa turismo bulegotik kudeatu izanak

Ondorengo taulan okupazio datuek izandako bilakaera ikus daiteke. Urdinez datu altuenak eta gorrix baxuenak adierazita daude. Udako hiruhilekoetan izan ohi dira okupazio maila altuenak. Deigarria da bisita kopuruaren gorakada ikusita eta plaza kopuruan aldaketa esanguratsurik egon gabe (kanpina 2015ean ireki da) batzbesteko okupazio tasak behera egin izana. 2014ean hala ere, berriro gorakako bidea hartu du. Arrazoien artean egon daiteke, ostalari guztien motibazio



eta esfortzu intentsitate-maila ez dela berdina, eta ostalaritza, jarduera osagarri gisa dutenak ez direla okupazio-maila altuak mantentzeaz arduratzen.

URTEA	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	BATAZB.
2006	42,66%	44,02%	39,91%	60,89%	45,37%	61,89%	88,32%	94,53%	79,92%	50,39%	39,07%	36,44%	58,04%
2007	29,89%	43,67%	49,94%	60,76%	47,87%	57,26%	83,54%	88,44%	64,26%	46,14%	39,16%	30,67%	53,53%
2008	30,74%	38,85%	48,96%	38,19%	55,33%	54,51%	57,33%	70,04%	54,96%	48,65%	48,65%	47,12%	54,56%
2009	21,75%	27,90%	29,79%	42,90%	47,13%	51,25%	78,37%	86,57%	54,54%	49,22%	37,06%	42,54%	47,60%
2010	32,15%	37,27%	34,21%	48,86%	35,70%	48,89%	80,29%	90,28%	55,31%	43,15%	33,43%	28,18%	47,75%
2011	29,17%	31,09%	33,12%	50,09%	33,34%	50,07%	73,85%	89,07%	61,03%	43,47%	27,50%	30,71%	47,10%
2012	33,75%	19,58%	32,94%	40,37%	32,42%	50,89%	77,61%	91,63%	52,48%	26,22%	22,79%	23,94%	42,53%
2013	24,32%	21,50%	32,99%	34,63%	31,26%	27,88%	67,24%	84,70%	49,66%	30,74%	25,44%	22,08%	40,28%
2014	18,86%	26,34%	26,60%	40,04%	41,96%	46,28%	70,08%	89,95%	67,02%	37,56%	32,95%	30,17%	45,14%

Iturria: Zumaiaiko turismo bulegoa

Etorkizunera begira, Geoparkea oinarri duen kalitatezko turismo jasagarri ereduagatik apustua nahiko indartsua izan arren, sakonago aztertu beharreko jarduera da. Turismo bulegoan jasotzen diren datuez gain, kategorien arabera ostatu mota ezberdinen eskari maila ezagutzea komenigarri ikusten da, Zumaia etortzeko arrazoiak, bidaiaren antolaketari buruzko xehetasunak, baliabide eta zerbitzu turistikoaren erabilpen eta asebetetzea, faltan bota dutena, batzbesteko gastua eguneko, etab. Herritarren artean ere turismoarekiko jarrera neurtu eta iritziak jasotzea ere gomendatzen da. Informazio guzti honen azterketa herrian turismoaren ekarpen ekonomikoa areagotzeko moduak lantzeko asmoz: Nola bihurtu txangolariak turista? Nola erakarri Euskadira datozen turistak Zumaian lo egitera? Nola egin erakargarriago Zumaia Euskadi eta inguruetak txangolarien zat? Nola areagotu zumaiaarren baliabide eta zerbitzu turistikoaren erabilera? Etab.

Bestalde, soldataren truke egiten den lana ahalbidetzeko, etxeko eta zaintza-lanetan dabiltzan langileen egoera prekarioak hausnarketa bat eskatzen du. Besteak beste, hirugarren adineko pertsonen kopuruak eta bizitza-luzerak gora egingo du eta belaunaldi berrietako emakumeen presentziak lan munduan hazten segiko du. Aldaketa soziodemografiko hauek behar berriak azaleraziko dituzte eta behar hauen asebetetzearen inguruan ekonomia jarduera berriak antolatu eta garatu eta lan murgildua azaleratu eta erregulatzeko aukerak sortzen dira. Gizarte-beharrei enpresa-jarduera ekonomikoaren bidez erantzuteko mugimendu hau laugarren sektore bezala ere ezagutzea eman da.

Zumaiaiko sektore ekonomikoaren indar-guneak, ahuleziak eta erronkak bildu ditugu ondorengo taulan:



2. Garapen Ekonomikoa

33

	Indarguneak	Ahuleziak	ERRONKAK
1. SEKTOREA	Ekimenak jarri dira abian bertako produktuei indarra emateko: Basherrri edo kontsumo-taldeak dira horren adibide.	- Gaur egun eragile ekonomikoaren % 1 besterik ez da: gero eta nekazari edo lurretik bizi diren pertsona gutxiago daude (orain batez ere Oikian eta Artadin dauka indarra sektoreak). - Azokan ere gero eta baserriar gutxiagok saltzen dituzte euren produktuak. - Egun ez dago arrantzan aritzen den baxurako itsasontzirik eta laketo-ontziak baino ez dira aritzen.	- Bertako produktu kalitatedunak saltzea bultzatzea, ingurumena eta lehen sektorea bultzatuz. Salmenta-sareak bultzatu (azokak indartu, Geoparkeko otarrak, Flysch txakolina...). 1. Sektorearen balio-katea aztertu - Herri baratzeak sortzea.
2. SEKTOREA	- Komunikazio azpiegitura onak daude eta hainbat industrialde ezarri eta garatu dira azken urteotan (Jose Maria Korta, Estazioa) eta Oikiako Modelo edo Xey-Guascor inguruetan hazteko aukerak daude. 2. sektoreak, oro har, enpleguari eusten dio, krisialdiari aurre eginez: Gipuzkoarekin alderatuta industriak pisu handiagoa du Zumaian (eragileen % 19 dira Zumaian eta % 13 Gipuzkoan). Maila ertain-altu eta altuko industria ere esanguratsuagoa (% 26 Zumaian eta Gipuzkoan % 19).	- Enpresen arteko elkarlanerako ohitura falta. - Estazio eta Kortako industrialdeak beteta eta hazteko aukerarik gabe daude. - Ekintzailatzarako edo coworking jardueretarako ez dago espaziorik herrian.	- Enpresen arteko elkarlana sustatzea lehiakortasuna hobetzeko. - Industria jarduera eta herritarren arteko elkarbizitza orekatua ahalbidetzeko herriguneetatik industria jarduerak aldentzea. - Ingurumena kaltetu gabe, tokiko enplegua sustatzeko garapen ekonomikoa bultzatzea.
3. SEKTOREA	- Nahiko egoera onean dago, nahiz eta ohitura eta joera aldaketek eragin dieten. - Hirugarren sektorea antolatuta dago (Zumaiako merkataria eta ostalari elkarteak eta Zumartian) eta hainbat ekimen gauzatzen ditu: sari bidezko fidelizazioa, erosketa txartelak... - Turismoak ere gora egin du aisialdirako alternatiba bereizgarria baitauka Zumaiak, batez ere Geoparkearen eskutik naturarekin zerikusia duena; eta Udalak turismo-bulegoaren bidez lantzen du gaia. - Kanpinak 600 lotarako plaza inguru gehitu ditu.	- Teknologia berri eta zerbitzu aurreratuen alorreko balio erantsi handiko jarduera gutxi. Ikerketa eta goi mailako ikasketetarako azpiegitura falta. - Turismorako eta herri bizitza sustatzeko azpiegitura egoki falta: espaloi zabalagoak, oinezkoentzat toki gehiago, aparkalekuak, lotarako plazak, jatetxe kopurua... - Egungo udal araudiak terrazak espaloietan eta dendetako produktuak kanpoan jartzeko mugak ezartzen ditu. - Nahasmena Zumaiako merkataria eta ostalarien elkarte (pribatu) eta Zumartianen (publiko-pribatu) artean. Berrantolaketa baten beharra. - Merkataria txikiek zailtasunak dauzkate aurrera egiteko: erosketak egiteko kanpora joateko joera dago. - Alde zaharrean lokal hutsak daude eta negozioak jartzeko zailtasunak daude gaurko araudiaren arabera	- Kalitatezko turismo jasangarriaren eskutik jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzeko aukera. Geoparkeko estrategia plangintza abian. - Herritarrek erosketak herrian bertan egitea. - Komertzioaren eta ostalaritzaren arteko elkarlana sustatu.



2. Garapen Ekonomikoa

34

Nazioarte mailan oraindik adostasunezko kontzeptua izan ez arren, 4. sektorea ere kontuan hartu da, batez ere etorkizuneko erronkei begira.

4. SEKTOREA	• Laugarren sektorearen kontzeptua nazioarte mailan (eta EAEn eta Gipuzkoan) indarrez datorren mugimendu bat da, gizarte berrikuntzari hertsiki lotuta. Jarduera publiko, pribatu eta gobernu kanpoko jardueren arteko hibridazio eremu gisa zehaztu ohi da eta modu eraginkorrean egungo gizarte erronkei erantzuteko bide berriak irekitzen ditu. • "Bizitzaren iraunkortasuna" bermatzeko helburua du laugarren sektoreak, aurreko beste hiru sektoreen sostengua da. • 2016ean zaintza lan jardueren inguruko diagnosi bat egingo da herri mailan.	• Laugarren sektorea kontzeptu berria da. Ekonomia munduan ez dago adostasunik oraindik bere norainokoaren inguruan. • Beste 3 sektoreetan ez bezala, ez dago laugarren sektoreari buruzko datu bilketa historikorik edo Zumaiarako baliagarri den analisi sakonik. • Orain arte ez da zaintza lan jardueri buruzko informaziorik jaso.	• Zumaian laugarren sektorearen koordinazio eta garapenean aurrera egin dezakegu, gizarte beharrei erantzun eta jarduera ekonomiko berriak bultzatuz. • Zaintza lanen inguruan ekonomia jarduera antolatu eta garatzeko aukera dago.
-------------	--	---	--




2.3. Enplegua

Biztanleriaren jarduera tasa aztertzerakoan, 2011ko datuen arabera, Zumaia Urola Kostako tasa baxuena duen herria da % 47,9rekin, baina beste herrietatik oso gertu (Aiak % 48,9a, Getariak % 48,8a, Zarautzek % 48,4a eta Oriok % 49,7a). Eustateko datuen arabera, 2011an EAEko eta Gipuzkoako jarduera-tasa Zumaia baina altuagoak ziren, % 48,4arekin eta % 48,1arekin.

Udalmap-eko datuen arabera, 55 eta 64 urte arteko biztanleen jarduera-tasa ere Urola Kostako baxuena zen % 39,8arekin.

Hala ere, langabeziari dagokionez, datuak kontrakoak dira, 2014ean Zumaia batz bestekoa % 9,2koa izan zen bitartean, Gipuzkoan % 10ekoa zen eta EAEan % 11,7koa. Ondorengo taulak Zumaia langabezia-tasaren bilakaera 2014-2014 urteetan nolakoa izan zen azaltzen du:



Iturria: Eustat

Ikus daitekeen bezala, 2012rarte langabezia-tasak gora egin bazuen ere, 2013an zehar beheranzko joera hasi zuela esan daiteke. Sexuaren aldagaia aintzat hartuta, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino 1,3 puntu altuagoa izan zen 2014ean (% 9,87 eta % 8,58 hurrenez hurren).

Bestalde, erregistratutako langabezia-tasa aztertuko da jarraian. Udalmap-eko 2014ko datuen arabera, Zumaia batz bestekoa beste zenbatekoen azpitik dago. 2013ko errotazio indizea Zumaia kasuan besteena baino apur bat altuagoa da.




2. Garapen ekonomikoa

36

Erregistratutako langabezia-tasa	Urtea	Zumaia	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
16 eta 64 urte arteko biztanleria (%)	2014	9,22	9,8	10,07	11,73
45 urte baino gehiagoko biztanleria (%)	2014	9,33	9,77	10,23	11,59
Luzaroko 16 eta 64 urte arteko langabetuak (%)	2013	3,96	4,22	4,78	5,85
Kontratu errotazioaren indizea (kontratuak/pertsona)	2013	3,03	2,62	2,87	2,98


Iturria: Udalmap

Langabezia-tasa hauek Urola Kostako beste herrieekin alderatu dira:



Iturria: Udalmap

Lanaren kalitateari dagokionez, kontratazio guztietatik mugagabeak direnak aztertu ditugu. Zumaiaiko portzentaia Urola Kostako herrien batz bestekoaren azpitik egon da 2005etik 2013ra.




Iturria: Udalmap

Kontratazioak aztertu ondoren hauek burutzen zituzten enpresen tamaina aztertu dugu. "Mikroenpresen" (10 pertsona baino gutxiagoko enpresen) garrantzia azaltzen da hurrengo irudian, urte eta herri bakoitzeko mikroenpresen lanpostuen



portzentaia adieraziz. Zumaiaiko balioa aldaketa handirik gabe mantendu da urteetan zehar. Adierazle honetan Urola Kostako beste herrien azpitik dago, tamaina handiagoko enpresen kopurua esanguratsuagoa delako herrian.



Iturria: Udalmap

Errenta pertsonal osoan 2009tik 2011ra % 2ko jaitsiera jasan du Zumaia (21.906€-tik 21.041€-ra). Urola Kostan bigarren postuan kokatzea ekarri dio galera horrek (Zarautz lehenengo postuan 21.487€rekin). Hala ere, EAEko 19.715€-ko eta Gipuzkoako 20.396€-ko batz bestekoen gainetik jarraitzen du.

Errentetan ezberdintasun esanguratsuak daude gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Ezberdintasun hauek Urola Kostako altuenak dira, gizonezkoen errentak emakumezkoen % 194,4a baita. Oraindik esanguratsuagoak dirudite Gipuzkoako (% 168,6) eta EAEko (% 173,8) batz bestekoarekin alderatuz.

Indarguneak	Ahuleziak	ERRONKAK
• Langabezia tasa altua izan arren, hoberako joera du eta eskualde, lurralde eta erkidegokoa baino baxuagoa da batzbestez. • Biztanleriaren ikasketa maila altua, lurraldeko batzbestekoaren gainetik. • Jarduera ekonomiko berriak abian jartzeko industriagune, komunikazio azpiegitura eta ekipamendu egokiak. • Turismo jardueren gorakada azken urteetan. • Eskualde mailako enplegu plan bat zehaztuta dago eta urteroko ekintza planak abian jartzen dira.	• Langabezia tasa altuak kontsumo gaitasunean eta ahultasun egoeran dauden persona kopuruan eragina du. • Emakume, gazte eta 45etik gorakoek zailtasunak dituzte kalitatezko lan baldintzak lortzeko. • Eskualdeko enplegu planaren eragina mugatua da. 2015ean 13 pertsona kontratatuko dira 6 hilabeterako.	• Berrikuntza eta ekintzailtza sustatzea, enpresa berriek aberastasuna eta lana herrian sortu eta banatzeko. Coworking espazioak ireki daitezke honetarako. • Artista profesional gazteei edo hasi berriei laguntzak eman beraien lokalak egokitzeko • Egungo enpresen hazkundera sustatzea, berrikuntza eta nazioartekoratze prozesuen bidez lanpostu berriak sortzeko. • Kalitatezko turismo jasangarria indartzeko aukera eta ildo honetatik lanpostu berriak sortzeko aukera.



2.4. Udalaren ekonomia eta finantza egoera

Udaletxeak 3 organismo ditu: Zumaiako Kirol Patronatua, Musika Patronatua eta San Juan Egoitza (azken honen ardura Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du 2015ean). Zumaia Lantzen, S.A. enpresa publikoa ere udalarena da baina likidatu egingo da eta udalak hartuko ditu bere ondasunak (6 etxebizitza eta lokal batzuk) eta dagozkion zorrak.

ZUMAIAKO UDALA 2014	Aurrekontua	Egindakoa
Sarrerak	12.946.044	12.692.173
Gastuak	12.946.044	11.424.343
Aurrekontuko eragiketen emaitza	0	1.267.831
Aurreko ekitaldietako emaitzak		-9.662
Doiketak		20.073
Aurrekontu emaitza doitua		1.278.242

ZUMAIAKO UDALA 2014	
2013ko diruzaintza gerakin gordina	758.347
Sarrerak itzultzeagatik hartzekodun 2013/12/31	973
2014 aurrekontu-emaitza (doitu gabe)	1.258.169
Sarrerak itzultzeagatik hartzekodun 2014/12/31	1.383
2014ko diruzaintza gerakin gordina	2.016.105

SAN JUAN EGOITZA 2014	Aurrekontua	Egindakoa
Sarrerak	1.856.306	1.806.321
Gastuak	1.856.306	1.808.160
Aurrekontuko eragiketen emaitza	0	-1.838
Aurreko ekitaldietako emaitzak		0
Doiketak		0
Aurrekontu emaitza doitua		-1.838

SAN JUAN EGOITZA 2014	
2013ko diruzaintza gerakin gordina	1.562
Sarrerak itzultzeagatik hartzekodun 2013/12/31	277
2014 aurrekontu-emaitza (doitu gabe)	-1.838
Sarrerak itzultzeagatik hartzekodun 2014/12/31	0
2014ko diruzaintza gerakin gordina	0



2. Garapen ekonomikoa

39

KIROL PATRONATUA 2014	Aurrekontua	Egindakoa
Sarrerak	1.040.242	1.039.697
Gastuak	1.040.242	1.033.608
Aurrekontuko eragiketen emaitza	0	6.089
Aurreko ekitaldietako emaitzak		0
Doiketak		6.089
Aurrekontu emaitza doitua		12.178

KIROL PATRONATUA 2014	
2013ko diruzaintza gerakin gordina	12.470
Sarrerak itzultzeagatik hartzekodun 2013/12/31	0
2014 aurrekontu-emaitza (doitu gabe)	6.089
Sarrerak itzultzeagatik hartzekodun 2014/12/31	0
2014ko diruzaintza gerakin gordina	18.559

MUSIKA PATRONATUA 2014	Aurrekontua	Egindakoa
Sarrerak	178.950	173.572
Gastuak	178.950	173.454
Aurrekontuko eragiketen emaitza	0	118
Aurreko ekitaldietako emaitzak		0
Doiketak		0
Aurrekontu emaitza doitua		118

MUSIKA PATRONATUA 2014	
2013ko diruzaintza gerakin gordina	429
Sarrerak itzultzeagatik hartzekodun 2013/12/31	0
2014 aurrekontu-emaitza (doitu gabe)	118
Sarrerak itzultzeagatik hartzekodun 2014/12/31	0
2014ko diruzaintza gerakin gordina	547

Udalaren aurrekontuaren gauzatze mailan izandako ezberdintasunak batez ere 6. kapituluari gertatu dira, inbertsio errealeen % 52a gauzatu da (2.097.560 € aurrekontuan eta 1.095.969 € onartuak). Zenbait inbertsio atzeratzen ari dira kontratazio prozedura behar baino mantsoago doalako. Sakonago aztertu beharreko gaia da kontratazioena, kontratu berrien zain egoteaz gain eguneratu gabeko kontratuak ere badaudelako.

Udalaren ekonomia eta finantza egoera ona da. Udal-aurrekontuak orekatuta daude, eta legeriak eskatzen dituen baldintza zorrotzak betetzen ditu erabat. 2015eko aurrekontuak 2014koei jarraitzen diete, ez dago aldaketa esanguratsurik.




2. Garapen ekonomikoa

40

Urola Kostako udalek dituzten zorrak aztertzean, oso argi bi talde sortu daitezke: zor handiak dituztenak eta ia zorrik gabe daudenak. Aia eta Zarautz lehenengo taldean egongo lirateke 2003tik 2012ra zorpetze-maila altua baitute. Zumaia bigarren taldean dago, ia biztanleko zor bizirik gabe eta Aia eta Orioren zenbatekoetara gerturatuz.

Udalaren zor bizia




Iturria: Udalmap

Bestalde, Zumaia Lantzen sozietate publikoa disolbatu egin da. Bere ondasunak orain Udalarenak izango dira eta erakundeak zeukan 3 milioiko zorra Udalak bere gain hartu du. Udalaren asmoa da zorra 15 urtetan kitatzea.

Udalaren biztanle bakoitzeko gastu likidatuari dagokionez, 2002tik 2012ra Urola Kostako datuak aztertuta, Zumaia zen gastu baxuenetakoa zuen herria, Zarautz eta Aiarekin batera.

Udalaren gastu likidatua




Iturria: Udalmap



2. Garapen ekonomikoa

41

Aia izan da 2005etik 2012rarte zerga bilketa handiena burutu duena biztanle bakoitzeko. Zumaiaiko datuak aztertzerakoan, esanguratsuena da zerga kopurua oso konstante mantendu dela urteetan zehar, aldaketa nabarmenik gabe.



Iturria: Udalmap

Honakoak izango lirateke udalaren egoera finantzarioarekin lotuta Zumaia dauzkan indargune eta erronkak:

INDARGUNEAK	ERRONKAK
- Udalaren ekonomia eta finantza egoera ona. - Alderatutako lurraldeetako zor bizi txikienetarikoa. - Zerga bilketen egoera oso egonkorra izan da azken urteetan.	- Zumaia Lantzen-ek (disolbatua) zituen ardurak banatzea. - Egoera finantzarioa kaltetu gabe herri proiektuen garapena sustatzea.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 42

3.1. Gizarte-zerbitzuak

Zumaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuak, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen esparruan kokatu behar dira.

Pertsona, famili eta taldeen autonomia, gizarteratze eta ongizatea du xedea. Pertsonen eta harremanen buruzkoa prestazio eta zerbitzuen bidez .

Udaleko Gizarte Zerbitzuak herrian zer nolako beharrak dauden antzematen ditu eta horiek bideratzeko baliabideak proposatu, bultzatu eta sortzen ditu. Pertsona, famili eta taldeen autonomia, gizarteratzea eta ongizatea du xede eta hau bi lan-ildo nagusi garatuz bideratzen du, batetik, pertsonen zuzendutako prestazio eta zerbitzuen bidez, eta bestetik, gizarte eta hezkuntza-arloko esku-hartzeen bidez. Beraz, laguntza emateko harago, lan hezitzailea egiten da, ikuspegi komunitarioa elikatuz.

Zentzu horretan, Zumaiako herritar guztiei zuzendutako udal-gizarte zerbitzuak eskaintzen dira, mendekotasun, babesgabe, bazterketa eta larrialdi-egoeretan dauden pertsonak, famili, talde edo herriko eragileen beharrei erantzuteko gertu dagoen zerbitzua da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege aurreikuspenekin bat etorriz, 185/2015 dekretuaren arabera, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zorroa arautzea da, baita prestazio eta zerbitzu horiek lortzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak ere. Lege horretan aldarrikatutako eskubide subjektiboak ez ezik, aipatutako zorroaren prestazio eta zerbitzuak eskaintzeari dagokionez euskal administrazio publikoek dituzten betebeharrak jasotzen ditu. Aipatutako dekretuak udal eskumeneko zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoak zein diren zehazten ditu.

Gizarte zerbitzuen legea oinarritzat hartuta eta 185/2015 dekretuaren arabera, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa kontuan izanik, Zumaiako udalak honako zerbitzuak eman behar ditu eta alorra betekizun horietara egokitzen dihardu orain:

Udal mailako zerbitzu-eskaintza:

- a) Informazio, baliospen, diagnostikoa eta orientabide-zerbitzua
- b) Etxez etxeko laguntza
- c) Gizarte eta hezkuntza eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua
- d) Zaintzaileei laguntza emateko zerbitzua
- e) Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 43

Udal eta eskualde mailako eskaintza:

- a) Eguneko arreta-zerbitzuak
- b) Gaueko harrera zerbitzuak bazterketa (aterpetxeak eta neguko dispositiboak)
- c) Ostatu-zerbitzuak/harrera-etxeak
- d) Ostatu-zerbitzuak/Tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat
- e) Adinekoentzat ostatu zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren funtsezko printzipio modura, zerbitzu eta prestazioetarako irisgarritasunean berdintasuna bermatze aldera, Legean hainbat tresna aurreikusten dira, esaterako Autonomia Erkidegoaren Plan Estrategikoa eta Plan horretan txertaturik dagoen Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Mapa, zeinek 2015-2017 epealdirako lurraldekako helburu estrategikoei erantzuten dien:

- 1.- Arretaren unibertsalizaziorantza joatea 2017ari begira. Gizarte zerbitzuetarako eta prestazio ekonomikoetarako irisgarritasuna eskubide subjeto gisa bermatzeko betebeharra daukagu, sistema hori arautu, antolatu eta hedatuz.
- 2.- Gipuzkoako gizarte baliabideen sare publikoko eskaintza gizarte-beharrizanen bilakaerara egokitzea eta lurralde mailako oreka lortzea.
- 3.- Zerbitzu eta prestazioen eskaintzari dagokion kalitatea hobetzea, pertsonen beharizanetara egokitutako arreta bermatzeko, eskaintza hori bere inguruetatik ahalik eta hurbilen kokatuz.
4. Zerbitzuen sare publikoaren antolaketa eta kudeaketa hobetzea, erakunde arteko koordinazioak sustatutako gizarte zerbitzuetako lurralde mailako antolaketaren bidez.
- 5.- Proposatutako helburu eta neurrien jarraipen, ebaluazio kontrol publikoa zilegitzea.

Gipuzkoako Mapak Zumaiako udalak oinarritzko zonaldean zer eskaini behar duen eta dagokion eremu eta eskualdean ze zerbitzu izan beharko lituzkeen jasotzen du eta 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak ezartzen dizkion betekizun horietara egokitzea dagokio Udalari, gizarte zerbitzuen sistema indartzeko helburuarekin, bai udal, eskualde, lurralde eta EAE mailan.

Gizarte-zerbitzuen 2014ko txostenaren arabera, Zumaiako udalak, aurrekontuaren %7a bideratu du Gizarte Zerbitzuetara eta Udalak azken urteetan arlo honetan giza- eta ekonomia-baliabideak handitu baditu ere, egungo eskaera eta beharrei erantzuteko nahikoa ez denaren iritzia jaso dugu arlo honetako aditu bai herritarren aldetik. Gizarte-zerbitzuek erantzun beharreko herritarren kopuruak gora egin duela aipatzen da eta horren adierazle dugu Gizarte-zerbitzuen azken urteko txostenean jasotako datuak:

- Batetik, biztanleen % 7,6ak (horietatik % 59,7 emakumeak eta % 40,3 gizonezkoak) jo duela gizarte-zerbitzuetara informazio, tramitazio, esku-hartze edo eta jarraipen zerbitzua jasotzera



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 44

- Bestetik, 2014an gizarte-langileek gutxienez 2.210 herritar aurrez aurre hartu zituztela bakoitzari zegozkion esku-hartze motak zehaztuz.
- Biztanleriaren adin-tarteak kontuan hartzen baditugu, eskuartean erabilitako espedienteen %17, 19 urtetik beherako zumaiarrenak izan dira; % 41, 60 urtetik gorako herritarrenak; % 42, 19tik 59 urte bitarteko herritarrenak.

Eskaerak gora joatearen arrazoen artean aipatzen dira honakoak: nagusiak, mendekotasun egoerak dituzten herritarrek, Zumaira etortzen diren etorkin kopurua gora doalako, langabezia-tasa handitu delako, eta familia/haur/nerabeen atalean gero eta kasu gehiago daudelako.

Hala ere, arlo honetako udal teknikariek azpimarratzen dute eskaerak gero anitzagoak, zabalagoak eta konplexuagoak direla, hala nola, irisgarritasun arazoak, zaintzaile familiarren lan kargak, famili kideen tratu txarrak, banaketa prozesuak, bizitzeko baliabiderik eza, famili kideen arteko harreman konplexuak, haur eta gaztetxoek arrisku-egoerak, kontsumoak, atzeritarren egoera bereziak, hizkuntzan zailtasunak, ohitura desberdinak, egoera irregularrak, oinarritzko beharrak asetu gabe, helduen egoera kronifikatuak, prestazio ekonomikoen menpe eta gizarteratzeko prozesuak egiteko zailtasun nabarmenekin bizi direnak, nagusiak, mendekotasun egoera gero eta handiagoak eta goizago dituztenak... Udal gizarte-zerbitzuetako teknikariek eskaera gero eta gehiagori eta anitzagoei erantzuteko gai izan direla baloratzen dute eta zerbitzu eta baliabideen hobekuntzak proposatzeko gaitasuna izan dutela baina, era berean, zerbitzua behar gehiagori erantzuteko gertu egon behar dela eta alorra indartu behar dela aipatzen dute. Herritarren artean ere, arlo honetan inbertitzen jarraitzearen garrantzia nabarmendu da, baliabide, proiektu, giza-baliabide eta aurrekontu gehiago eskatzen duen arloa dela azpimarratuz.

Honekin lotuta, gizarte-zerbitzuen alorra berrantolatze beharra atzematen dute udal-langileek eta Zumaiako herritarrei lehen mailako esku-hartzea eskaintzeko zer nolako zerbitzua eskaini behar den eta zer nolako baliabideak behar diren jakiteko hausnarketa baten beharra dagoela aipatzen dute. Horretarako, zerbitzu eta prestazioen zorroa kontuan hartu beharra dagoela eta profil sozio-sanitarioa zehaztu beharra nabarmendu da egindako saioetan, batez ere, mendekotasunak eta babesgabetasun egoerak dituzten herritarrek artatzeko teknikari falta dagoela azpimarratuz.

Esku-hartzeko oinarritzko prozedura eta tresna tekniko komunak ezartzeko beharra ere aipatzen da, eta esku-hartze eta prozedurak adostu eta bateratu beharra.

Herritar batzuk aipatu dute zenbait zerbitzu ez direla herrian ezagutzen eta herriko baliabideak ezagutarazteko harrera-zerbitzu baten beharra atzeman dutela.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 45

Azpiegiturei dagokionez, gizarte-zerbitzuak kudeatzeko bi azpiegitura nagusi daude: Branka eraikina eta Gizarte Zentroa.

Branka eraikinean honako zerbitzuak daude kokatuta:

- a) Udal Gizarte Zerbitzuen saila: Gizarte Zerbitzuekin zerikusia duen edozein gaietarako Udal Gizarte Departamentura joan behar du edozein herritarrek, elkarteetako ordezkariak, familia-kideak...



- b) Eguneko Zentroa: Mendekotasuna duten pertsona adinduei beraien egunekotasunerako beharrezkoak diren ekintzak egiten jarraitzeko laguntza ematen dien zerbitzua da.
- c) Balio anitzeko apartamentuak: Behar berezi batzuei erantzuteko dira: pertsona adinduek etxebizitza egokirik ez dutenean, elkarbizitza arazoak dauzkatenean, bakardadea edota errekurtso ekonomikoek merkatuko etxebizitza batera iristea laguntzen ez dienean, manutentzio beharra asetzeko.... Guztira 16 apartamentu daude. 12 apartamentu daude bakarkakoentzat, 4 apartamentu bikoitz eta apartamentu bakarra 4 plazakoa, familia osoentzat. Apartamentu bakarra 4 plazakoa
- d) Larrialdietako apartamentua: aldi baterako bizitoki eta harrera eskaintzen da. Etxebizitza ezak edota bizikidetza arazo larriak sortutako egoera larriengatik ohiko bere etxebizitzatik irtetea eskatzen duten egoerei erantzun bat emateko. Hau da, famili harreman jasanezinak, tratu txar, hondamendi, sutea, uholdea...etab.

Gizarte-zentroan, aldiz, honelako zerbitzu eta elkarteak kokatuta daude:

- a) Taberna-jatetxea
- b) Ile-apaindegia
- c) Podologo zerbitzua.

Hiru zerbitzu hauen kudeaketa kanpoko enpresek daramate baina Udalari dagokio bertako kudeaketa nondik nora izango den zehaztea eta baita eraikuntza guztiaren mantentzea egitea ere. Gizarte Zentroaren eraikinari dagozkion eskubide guztiak, titularitza izan ezik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ditu. Hori dela-eta, 2002. urtean Foru Aldundiak Zumaiako Udalari gizarte zentroaren erabilera utzi zion, 50 urterako. Gizarte Zentroa, beraz, gizarte-gai eta -zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak burutzeko erabiltzeko dago.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 46

Zumaiaiko udalaren gain dago eraikuntza honen inguruan sortzen diren gastu eta mantentze-lanak.

Aldi berean, Gizarte-zentroan hainbat gizarte elkarte kokatzen dira: Beheko Plaza Jubilatu eta Pentsionisten Elkartea, Nagusilan Elkartea eta bi hilabetetik behin Odol Emaileak.

Zentro honen inguruan, udal-mailan hausnarketa sakona egin beharko litzatekeela aipatu dute gizarte-zerbitzuetako udal-langileek, batik bat, beharrak, gune desberdinen erabilerak eta lehentasunak markatzeko. Horrez gain, egoitza zaharkituta dagoela eta berrikuntza eta berrantolaketa behar duela azpimarratu da herritarrekin egindako saioetan. Oro har, gizarte-zerbitzuetako eraikinen mantentze-plan orokor bat garatzearen beharra azpimarratzen da alor honetan.

Aipatu behar da, Branka eta Gizarte-zentroaz gain, gizarte-zerbitzua eskaintzen duten beste bi azpiegitura daudela Zumaian: San Juan Egoitza eta Otezuri Egoitza. San Juan egoitzaren kudeaketa, Foru Aldundiari dagokio eta Otezurirena, Matia Fundazioari, baina biztanleriaren eskaeren tramitazio administratiboa eta komunikazioa Gizarte Zerbitzuen sailak egiten du. Bestalde, San Juan egoitza alboko eraikina-etxetxea Udalarena izaten jarraituko du eta hau zertara bideratu behar den zehaztu beharra azpimarratzen da.

Egoitzen gaineko prezioa eta berauetara sartzeko aukerak zein diren aztertzea beharra dagoela aipatu da ere herritarren saioetan. Hala ere, aipatu behar da Foru eskumeneko zerbitzua den neurrian, udalak ez dituela zehazten bertako baldintza eta prezioak.

Gizarte-zerbitzuen erabiltzaile nagusien arabera ere jaso dugu informazioa, bakoitzaren egoera eta behar zehatza deskribatzeko helburuarekin:

Nagusiak

Zumaian % 17 dira 65 urtetik gorako herritarrak. Nagusien multzoa oso zabala da eta egoera eta errealitate desberdinak ditu. Besteak beste, arlo hau indartzeko Nagusien Mahaia sortu da, nagusien alde lan egiten duen pertsona eta taldeak biltzen dituen (nagusiak, senideak, zaintzaileak, bolondresak, profesionalak...), bakardadean eta ahultasun-egoeran dauden adineko pertsonen laguntza eskaintzeko eta antolamendu komun bat sortzeko helburuarekin. Horrela, Zumaian adinekoentzat dauden zerbitzu eta programa desberdinen informazioa bateratzen du eta nagusien errealitatea, helburuak eta nahiak jasotzen ditu, beti ere, nagusien parte hartze zuzena bultzatuz.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 47

Oro har, nagusiei begira herrian zerbitzu eta prestazio ugari dagoela baloratzen da: oporrak egiteko aukera, Tipi-Tapa, Beheko plaza elkartea, Nagusilan, Gizarte Zentroa, tele-asistentzia, Sendian programaren barruan besteak beste urtero famili zaintzaileentzat formazioa, balioanizdun apartamentuak, etxez etxeko laguntza, eguneko zentroa eta bi egoitza.

Hala ere, zerbitzu hauek ongi egon arren, adinekoei eskaintzen zaizkien zerbitzuak indartu beharra dagoela eta eskaintzen diren zerbitzu batzuk aztertu eta egokitu beharra dagoela aipatu da aditu eta herritarren artean, hala nola:

- Gizarte Zentroa eraikuntzako zerbitzuek nagusi mota desberdinei erantzun beharko liokete, batetik, autonomia duten adinekoei eta bestetik, laguntza puntuala eta jarraitua behar duten adinekoei ere. Hau da, arrisku egoeran dauden nagusientzako ekintza desberdinak antolatu beharko liratekeela aipatzen da eta horretarako, nagusien behar desberdinak zein diren aztertu beharra dagoela, bakoitzari erantzun egokia emateko.
- Adinekoen eskaintzan estereotipoak gainditu beharra dagoela ere aipatzen da, ohiko karta-jolasetik haragoko eskaintza zabaltzearen beharra dagoela esan da: gimnasia, ordenagailuak, gimnasia parkeak, ikastaroak doan...
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua azken urteetan oso geldirik dago eta arrazoi desberdinak egon arren, bat gaur egun duen prezioa dela aipatzen da gizarte-zerbitzuen azken urteko txostenean. Ez da arrazoi bakarra ordea, herritarren artean aipatu delako pertsona nagusiek ez dutela zerbitzu hori erabili nahi, adinekoek nahiago dutelako kanpoko ezezagunek baino etxekoek zaintzea. Ondorioz, familia ugari daude zaintza-lan horiek beraien gain hartzen dituztenak eta nolabait karga hori arintzeko laguntza-bideak aztertzea proposatzen dute. Hori dela eta, udal mailan aztertu egin beharko litzateke zer motatako zerbitzua eskaini nahi den, norentzako eta ze baldintzetan.
- Gizarte-zentroaren ordutegia egokitzeaz ere egin da aipamenen bat.
- Herriko hizkeraren aitzakian, hitzaldiak eta solasaldiak antolatzea egoitzetan.

Familia, haur eta gazteak

Udalari dagokio gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eskaintzea ere. Prestazio hauek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte –eta kultura-arloko bitatekaritza) gara daitezke-,

Familia, haur eta gazteen eremuan, gero eta kasu gehiago ari dira detektatzen Gizarte Zerbitzuetatik, eta arlo honek arreta berezia behar duela aipatzen da



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 48

Zerbitzu horietatik. Izan ere, arlo honek eskatzen duen espezializazio eta dedikazioa kontuan hartuta, ezinezkoa da gauzatzea gaur egun zerbitzuak dituen baliabideekin. Zentzu horretan, eta Zumaiaiko, biztanleriaren % 22ak 19 urtetik behera dituela kontuan hartuz, arlo honetako zerbitzuak indartzea proposatzen da.

Arlo honetan esku hartzeko egitasmoak indartzeko ahalegina egin dela aitortzen da, eta besteak beste, horren adibide dira; Familiei zuzendutako aholkularitza eta orientazio zerbitzua eta arrisku egoera arin eta ertainean dauden adingabei zuzendutako famili-eskuhartzeak eta, kale-heziketaren esparruan garatzen ari den Ingurune Irekiko Programa Helburu nagusiak dira, batez ere, esku-hartze sozio-hezitzaileen garapenaren bitartez, arrisku egoeran egon daitezkeen haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzutea, eta esku-hartze horietan aurrerapausoak eman ahal izateko ikastetxeekin eta gainerako zerbitzuekin erantzunkidetasunean oinarritutako proiektuen garapenean aurrera egitea. Horretarako, kale-hezitzaileak Ingurune Irekiko testuinguruetan jarduten dute (gazteak biltzen diren guneeetan: gaztegunean, kalean, eskolan...), gazteekin harremandu eta behaketa lana eginez. 2014an 9 Banakako Heziketa Proiektu kudeatu dira eta 9 Taldekako Heziketa Proiektu. Talde bakoitzak gazteen behar ezberdinei erantzuten die, hala nola, herriko baliabide eta zerbitzuetan parte hartze gutxi dutenak, eskolan zailtasunak edo gatazkak dituztenak, harremanetarako zailtasunak dituztenak...). Guztira, Taldekako Heziketa Proiektuetan eta heziketa-markoetan parte hartu duten haur, nerabe eta gazte-kopurua 51koa da (2014an).

Bestalde, familia, haur eta gazteen alorreko koordinazioa hobetzeko Prebentzio Mahaia eratu da eta Gizarte Zerbitzuetatik dinamizatzen da. Herritarren saioan ondo baloratu da mahai honen eratzea. Prebentzio Mahaiaren helburu nagusia, eragile desberdinen artean, herritarren kohesio, bizikidetzak eta bizi kalitatea hobetzea da eta horretarako honako herri eragileek parte hartzen dute: Udalak (udaltzainburua, kultura, hezkuntza, gaztedia, merkataritza, kirola, berdintasuna, kale hezitzaileak, gizarte zerbitzuak), lanbide hastapenak, ikastetxe guztietako ordezkariak eta osasun zentroko sendagileak. Orain arte ibilbide apala egin duen arren, eragile eta zerbitzu guztiak ezagutu eta hainbat gaiekin bat egiteko balio izan duela aipatzen da. Herri mailan, Prebentzio Mahaia nola indartu behar den zehazteko hausnarketa-prozesua martxan dago eta mahai hau eraginkorra izatea bideratzea dela gakoa aipatu da herritarren saioan. Herritar zein adituak bat datoz, herriko profesional eta eragileen arteko elkarlana eta lankidetzak ezinbestekoa dela herritarrekin eta familia-kideekin lanean jarraitzeko.

Halaber, familia desberdinei ematen zaien laguntza efikaziaz neurtzea komeni dela ere jaso dugu herritarren ekarpenen artean.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 49

Desgaitasuna/mendekotasuna dutenak

2014ko datuen arabera, zumaiarren %6ak desgaitasunen bat onartua du, urteen bilakaeran gorantz doan eta joango den datua da, hurrengo urteetan populazioaren zahartzea nabarmen haziko dela kontuan hartzen badugu.

Hori horrela, herriko arlo guztien garapen eta lanketan, beraien ikuspegia kontuan hartze ezinbestekoa dela aipatu da aditu eta herritarren artean (irisgarritasuna, hezkuntza, kirola, kultura, turismoa, aisialdia eta herri dinamika...).

Bizitzeko baliabide falta dutenak

Azken urteetako langabetuen tasak goraka egin du eta hainbat herritar, oinarritzko beharrak asetzeko Lanbideren, Foru Aldundiaren edo Udalaren prestazio ekonomikoen menpe dago. Inguruko herriekin konparatuta, egoera ez da hain larria, baina prestazio ekonomikoen onuradunen kopurua urtez urte goraka doa. Prestazio hauek mantentzea beharrezkoa dela aipatzen da gizarterbitzuen urteko azken txostenean. Krisi ekonomikoan harira, hainbat familia-kideen zorpetze-maila handia da eta zailtasun nabarmenak dituzte erantzuteko eta oinarritzko beharrei aurre egiteko. Baita lanean ari diren herritarrek ere, gero eta diru-sarrera txikiagoa eta kontsumo dinamika handian sartuta daudelako.

Prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten onuradunen perfila zabala dela azpimarratzen da, oso errealitate desberdinekin.

Gizarteratzeko zailtasunak dituztenak

Herritar batzuek gizarteratzeko prozesuak egiteko zailtasun nabarmenak dituztela aipatzen dute arloko adituek, arazo horiek dituztenak identifikatzeko lana egin baita. Ondorioz, bazterketa egoeran dauden herritarrekin (egoera kronikoak, gaixotasunak, kontsumoak, giza abilezia gutxi dutenak...) gizarteratzeko prozesuak lantzeko beharra dagoela azpimarratu da aditu eta herritarren saioan. Arlo honetan, gizarteratzeko baliabideak sortu behar direla aipatzen da, bai udal mailan edo/eta eskualde mailan.

Etorri berriak

Azken urteetan gero eta gehiago dira Zumaia bizitokitizat hautatzen duten etorri berriak. 2009an populazioaren % 3,9 ziren bitartean, 2013an % 5a dira. Oro har, etorri berriei zuzendutako zerbitzuak indartu behar direla aipatzen da eta errealitate berro horri aurre egiteko esku-hartzeak proposatzeko baliabideak eta tresnak behar direla nabarmendu da. Aditu eta herritarren saioan, besteak beste, aipatu da etorkinei harrera egiterakoan hutsunea atzematen dela eta



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 50

kolektibo hauentzako aterpetxe bat egon beharko litzatekeela, edota etxe funtzioa izango luketen lokalak, dutxa barne.

Oro har, kolektibo guztietan prebentzio-lana indartu beharra dagoela aipatu da, eta horretarako herri-mailan eta probintzia-mailan dauden elkarte eta erakundeekiko elkarlana sendotzen jarraitu beharra dagoela azpimarratu da. Zentzu horretan, ikastetxeekin dagoen harremana ona eta iraunkorra dela aipatzen da, hainbat ekintza elkarlanean garatuz: psikomotrizitate terapeutikoa, gurasoentzako aholkularitza...

3.2. Kultura

Kultura-jarduerak garatzeko Zumaiak duen azpiegitura fisikoa handia da. Kultur etxeak bi eraikin nagusi dituen arren (Alondegia eta Foronda), badira beste eraikin batzuk ere kultur erabilera dutenak, hala nola, Ubillos musika-eskola, Komentuko kapera, Aita Mari aretoa, Uxategia eta Torreberri.

Alondegia:

Alondegia 2011n ireki zen kultur etxe bezala eta ordunik bera da kultura erreferentzia gune nagusia. Alondegiak eskaintzen dituen zerbitzuak honakoak dira:

- Herriko kultura-programazioa
- Herriko jaiak koordinatzea eta antolatzea
- Kulturo diru-laguntzen kudeaketa
- Erakusketa-aretoak eta egutegiaren kudeaketa
- Liburutegia
- Argazki-laborategia
- KZ gunea
- Bilera-gelak eta erreserba-kudeaketa



Alondegiak herriko kulturari bultzada handia eman diola baloratzen da, kulturarako espazioa handitzea ekarri duelako horrek, eta erakusketak egiteko, elkarte bilerak egiteko, ikasteko espazioak hobetu dituelako. Hala ere, aditu eta herritarren saioan hobetzeko dauden alderdiak nabarmendu dira:

- Liburutegiaren erabilera mugatua da eta eduki aldetik ere nahiko mugatua dago. Batetik, espazio aldetik beti beteta dagoela eta ordutegia ere mugatua duela aipatzen da; bestetik, edukiak beste modu batean lantzeko gune berriak sortzea proposatzen da, eztabaidarako eta sormenerako gunea, haurren



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 51

txokoan marrazketa eta sormena lantzeko leku libre baten falta... Oro har, sormenerako gune berrien falta sumatzen da herrian.

- Argazki-laborategia badagoela, baina ez dela erabiltzen aipatu da.
- Udal-artxibo historikoa erabiltzeko zailtasunak daude, kontsultak liburutegian egin daitezkeelako baina gero, fisikoki udalean dagoelako. Honek, ordutegien ikuspegitik, zailtasunak sortzen ditu.
- Herriko zenbait elkarteek ekipamendu falta sumatzen dute herrian, elkarteentzako lokal eta material falta. Honekin lotuta, Alain kultur ekipamendu berri bat sortzeko proposamena egin da.

Foronda:

Alondegia eraiki baino lehen kultur etxea zen Foronda eta 2011 geroztik Alondegia kultur etxe nagusia den arren, Forondak ere kultur erabilera izaten jarraitzen du, batez ere, ikastaroei lotutako jardueretan. Hala ere, aditu eta herritarren saioan jaso da Foronda zertarako erabili aztertu beharra dagoela, eta bere egoera eta mantentzea ere hobetu behar dela.



Ubillos:

Ubillos musika-eskolaren gainean jasotako ekarpenak jauregiak duen berritze-beharrarekin lotutakoak izan dira. Eraikina egokitzerakoan, intsonorizazioa eta irisgarritasuna kontuan hartzea aipatu da. Bestalde, egunerokotasunean kontuan hartzekoen artean, patioko argiak kontrolatzea eta berogailu sistemarentzat tenporizadorea ezartzea aipatu dira.





3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 52

Komentua eta komentuaren kapera:

Komentuarekin zer egin behar den zehaztu behar dela adierazi da saioetan eta beronen erabilera zehaztu beharra dagoela. Erabilera anitz eta ezberdinak proposatu dira komenturako: aterpetxea; coworking espazioa; hotela; erabilera anitzeko gela; emergentzi edo epe laburreko beharrei erantzuteko behar sozialen etxea; sormen, antzerki, plastika lantzeko gunea, baratza...). Komentuaren kapera zenbait kultur ekitaldi antolatzeke erabiltzen da egun.

Aita Mari aretoa:

Aita Mari aretoa zinema eta antzoki bezala erabiltzen da eta erabilpen handia du herrian. Honek ere berritze-falta duela jaso dugu herritarren aldetik, batez ere, jarlekuak egokitu eta aire egokitua ezartzeko beharra aipatu dute.



Uxategia:

Zumaiako Udalak, Uxategia eraikina musika taldeentzat egokitu zuen duela 4 urte inguru. Modu honetara, musika sormenerako espazio egokiak eskaini nahi izan zaizkie musika taldeei eta egun bertan biltzen dira 20 musika-talde inguru beraien entseguak egiteko goiko solairuan. Beheko solairuan UCC elkarteak elkartzen da eta beheko solairuaren erabilera aztertu beharreko gaia dela aipatzen da. Eraikina ez da irisgarria.





3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 53

Torreberri:

Torreberri dantza-ikastaroak ematen dira eta gaztetxea ere bertan kokatzen da. Hala ere, honen erabilera hobeto zehaztu behar dela aipatzen da eta zenbait gune



egokitze beharra dagoela. Horrez gain, kudeaketa eta zainketa behar dituela aipatu da, batez ere, erdiko pisuak. Eduki eta kudeaketa aldetik, Torreberri eta zahar egoitza elkartzeko proposamena ere jaso da saioetan.

Dantzarekin erlazionatuta, aldiz, dantzarako areto egoki baten beharra dagoela azpimarratu da, dutxa eta aldagelekin.

Oro har, kultur ekipamendu eta azpiegiturei dagokienez, hauek lirateke aurrera begira kontuan hartzekoak: eraikinen erabilera-irizpideak zehaztea, zenbait kasuetan egokitze- eta berritze-lanak aztertzea, eta eraikinen arteko koordinazioa hobetzea. Urrats horiek garatzerakoan, herrian hutsik dauden eraikinak ere kontuan hartzea proposatzen da, edota herrian dauden beste eraikin edo instalakuntzak ere herri erabilerarako kontuan hartzea, adibidez: Maria eta Jose ikastetxeko aretoa.

Alai Auzategitik ere etorri da eskaera zehatz bat kultur ekipamendu baten eskaerarekin lotuta: Branka eraikineko atzeko aldean kokatzea kultur ekipamendu bat, Branka Kultur Gunea izenekoa, zonalde hori erakusketak, hitzaldiak, umeentzako tailerrak, elkarte eta kirol klub bilerak egiteko hornituz. Bestalde, asko errepikatu den ideia bat da kalean antolatzen diren ekitaldietarako estalpe baten falta dagoela, bai herrigunean bai auzoetan, Oikia, kasu, edo Aita Mariko edo Victoriano Arrasateko plaza txikietan. Halaber, estalpeekin jarraituz, 6. sektoreak ere eskaera zehatza egin du kiosko bat eraikitzearen inguruan, baratze ekologikoak dauden zelaigunearen ondoan, Marianon ume-parkearen ondoan. Modu honetara Zumaian oro har antolatzen diren kultura ekitaldiak herrigunetik ateratzea proposatzen da, ondoko auzoak ere ekitaldiz jantziz.

Patrimonio-elementuak aztertuz, kultur ondarea babesteko ahalegina egin da eta babestu beharreko elementu ugari identifikatu dira: Arritokietako Andre Maria, Foronda jauregia, Oikiako San Bartolome, Olazabal jauregia, Santiago ermita, San Jose komentua, San Migel eliza, San Pedro eliza, San Telmo ermita, Ubillos jauregia, Torreberri, komentuko kapera, Zumaia itsasargia, Zumaia jauregia. Gai honen inguruan, uki daitekeen ondarea babesteko eta kontserbatzeko sentsibilizazio falta dagoela herritarren artean aipatu da. Ondarea babesteko neurrietan sakontzea komeniko litzateke, beraz. Azkenik,



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 54

oro har, herriarentzat esanguratsuak diren eraikinak herriarentzat errekuaratzea edo modu zabalagoan tratatzea ideia interesgarritzat jo da herriarren artean, beti ere, babes-neurriak kontuan hartuz.


Kultur eskaintzari dagokionez, Zumaiaiko eskaintza kulturala zabala eta askotarikoa da: erakusketak, ikuskizunak, antzerkia, zinema, herriko jaiak, egun bereziak... Programazioa egonkorra eta aberatsa da.

2015ean modu honetara banatu da kulturako udal-aurrekontua:

JARDUERA	€	%
Liburutegia	24.500	4,10
Aita Mari aretoaren kudeaketa	37.000	6,19
Musika-arloa	225.000	37,66
Musika-eskola, musika jaialdia, jarduerak	180.000	
Musika-elkarte eta taldeei diru-laguntzak	45.000	
Jaiak- gastu zuzena	121.000	20,25
Kultur jarduera orokorra	103.000	17,24
Taldeei diru-laguntzak	87.000	14,56
Jaiak+auzoetako jaiak	67.000	
Kultur taldeen jarduera	20.000	
GUZTIRA	597.500	100,00

Kulturaren Euskal Behatokiak jasotzen dituen datu estastikoekin erkatuz, Zumaia 5.000-20.000 biztanle artean dituzten udalerriekiko nola kokatzen den aztertu dugu, konparagarriak iruditu zaizkigun kontzeptuetan:

Udalen kultura-gastua kultura-esparruen eta udalerriaren neurriaren arabera, Zumaiaekin erkatuta



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia; Finantzaketa eta gastu publikoa kulturean EAE 2012.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 55

Liburutegiaren baitan sartzen dira liburutegiko funtsak mantentzea eta erostea, eta baita liburutegiak sustatzen dituen jarduerak ere. Bibliografia-ondarea katalogatzeko, babesteko eta zaharberritzeko lanak ere hemen sartzen dira. Zumaia, EAEko 5000-20000 biztanle dituzten herrien batez bestekotik urrun dago arlo honetan, beste udalerrien gastuaren batazbestekoa bikoiztu egiten delako. Hala ere, aipatu behar da, datua guztiz erkagarria izateko, datu bakoitza xehetasunez desglosatu beharko litzatekeela eta bakoitzaren atzean ezkututzen den gastu zehatzak arreta handiz aztertu beharko liratekeela. Hala ere, honek argazki bat ematen digu, gaiaz hausnartzeko eta estrategiak lantzeko orduan baliagarria zaiguna..

Musika alorrean, zuzeneko emanaldiak, ikuskizun lirikoak eta industria fonografikoa (sorkuntza, ekoizpen nahiz hedapenerako laguntzak), eta arautu gabeko hezkuntzako musika eskolei dagokien gastua sartzen da. Arlo honetan, Zumaia beste udalerriekiko bataz bestekotik bereizi egiten da, musika arloa indartuz.

Zinema eta ikus-entzunezkoen alorrean, lan zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa sartzen da, eta Zumaiak beste udalerriekin alderatuz, arlo honetan gehiago gastatzen duela ondorioztatzen dugu, Aita Mariren kudeaketa barne hartuaz.

Kultur ekintza bezala ulertzen da, kultur etxetik bultzatutako programak, balio anizteko kultura-ekipamenduak eta -zerbitzuak, elkarteen jarduerak... Gastua 3 puntu txikiago da Zumaian, beste udalerrietan baino.

Jaiak kontzeptuaren baitan dago herriko jaiak eta zaindarien jaiak ospatzeko jarduerak eta emanaldiak, baita herri-kulturarekin eta kultura tradizionalarekin lotutako emanaldiak ere. Arlo honetan gastua parekatua da beste udalerriekiko.

Jaiak direla-eta, Zumaian ospatzen diren jaiak ugariak dira; ospetsuenak San Telmoak badira ere (aste santu osteko bi asteburu), San Pedroak ere ospatzen dira ekainaren bukaeran, su artifizialak, bandaren doinuak, herri kirolak... bezalako ekintzekin. Auzoetan ere badago ohitura festak antolatzeke, abuztu bukaeran San Bartolomeak Oikian (erromeria eta bestelako ekitaldi kulturalak), Artadin San Migelak (irailak 29), Narrondoko jaiak (uztaileko 2.asteburuan), Estazioko jaiak San Pankrazio egunean (maiatzak 12), Alaiko jaiak (ekainaren 2. edo 3. asteburuan). Auzoetako jaiak mantentzen direla ikusten da eta Udalari eskatzen zaio auzoetako jai-batzordeei diruz laguntzea, bai baliabideetan bai ekintzak antolatzerakoan.

Herriko festek kulturaren aurrekontu eta dedikazioan pisu handiegia dutela ere aipatu izan da. EAEko beste 5.000-20.000 biztanle arteko udalerriekin erkatuz, ordea, gastua besteekiko ez dela asko nabarmentzen ikus dezakegu.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 56

Horrez gain, udaberri eta udara garaian eskaintza nahiko finkoa izatean da egun bereziei dagokienez, besteak beste, Euskal Jaia, Kuadrilla Eguna, eta Nazioarteko Musika jaialdia, Olarro Eguna...

Hala ere, aipatzen da antolatzen diren ekitaldi guztien arteko koordinazio falta dagoela eta udala eta elkarteen arteko koordinazioa hobetu beharra dagoela. Programazio kulturala bere osotasunean kudeatzeko lanean jarraitu beharra dago, beraz. Zentzu horretan, kultura kudeatu eta koordinatzeko helburuaren alde lan egiten du Kultura Mahaiak (Udalak, taldeek eta kultur eragileek osatzen dutena) eta Musika Patronatuak (Udala, musika-eskola eta musikarekin lotutako taldeak biltzen dituena). Lanerako egitura horien erronka litzateke kultura-eragileen artean koordinazioa, elkarlana eta sinergiak sustatzea.

Aztertutako *Euskura* txostenean ageri dena jasoz, sormena eta eskaintzaren artean desorekak daude; adibidez, antzerkigintzan eskaintza ona da, baina sormena ez da bultzatzen; arte-plastikoen munduan, berriz, sormena badago baina hedapena ez da sustatzen. Aipatzen da baita ere, ekitaldi batzuk inertziak antolatzen direla, urtero errepikatzen direlako. Horrela, kultur arloko plangintza berritzeko premia dagoela adierazten da, herritar eta kultur eragileen beharrei erantzungo diena, eragileen arteko sinergiak sustatuko dituen eta diziplinen artean dauden desorekak gaindituko dituen.

Herriko taldeen emankizun eta ekitaldiak sustatuko dituen kultura bultzatzea ere kontuan hartzea proposatzen da. Izan ere, herrian sormen kultural handia dago, kultur talde ugari daude diziplina anitzekoak (musika-taldeak, margolariak, bertsolariak...) eta talde horiek egiten duten lana kaleratu eta ezagutarazteko bidea izango litzateke. Era berean, beste herrietako kultura-eskaintzarekin sareak osatzea ere aukera bezala ikusten da.

Hedapenaren inguruan, zailtasunak atzematen direla adierazten da, nahiz eta erabilgarri dauden mekanismoak erabili eskaintza gizartera iristea ez delako guztiz lortzen. Honekin lotura zuzena izan dezake ekitaldi masiboetan jende askok parte hartzea eta eskaintza espezifikagoetan asistentzia jaistea. Korrelazio hori aztertzea interesgarria litzateke, parte hartze baxuaren atzean dauden arrazoiak hobe ezagutzeko, komunikazio-mekanismoak ez direlako iristen, eskaintza eta eskariaren arteko desoreka ematen delako...edo bestelako arrazoiaren bat.

3.3. Hezkuntza

Ikasketa-mailaren inguruan, 2013ko datuen arabera, Zumaian, gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten 10 urte eta gehiagoko biztanleria % 63 da (Zarautzen % 68).



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 57

Bestalde, lanbide-ikasketak gainditu dituzten 10 urteko eta gehiagoko biztanleak % 21 dira, eskualdeko lehenengo herria izanik. Unibertsitateko ikasketak bukatu dituzten 10 urteko edo gehiagoko biztanleak % 21 dira, eskualdeko hirugarren herria izanik, Zarautz (%27,65) eta Getariaren (% 21,61) atzetik.

Biztanleria aktibo guztiaren % 49k goi-mailako ikasketak ditu, hau da, unibertsitate-titulazioa edo goi-mailako lanbide-heziketa eginak dituzte (EAEko batz bestekoaren pareko datuak dira).

Ikastetxeei dagokionez, adin-tarte ezberdinei zuzendutako ikastetxeak daude Zumaian. Hezkuntza arautuko eskaintza, gainera, handitu egin da haur-eskolekin, eta batxilergoa ere Zumaian bertan ikas dezakete gazteek. 6 ikastetxe daude Zumaian, guztiak D ereduak:

- Haur eskola-Eskola txikia, 0-2 urte bitartekoentzat, publikoa.
- Haur eskola-Arrangoleta, 0-2 urte bitartekoentzat, publikoa.
- Oikiako eskola, 3-12 urte bitartekoentzat, publikoa.
- Maria eta Jose ikastetxea, 0-16 urte bitartekoentzat, itunpeko ikastetxea
- Hasierako Lanbide Prestakuntza: soldadura, 16-18 urte bitartekoentzat.
- Herri eskola, 3-18 urte bitartekoentzat, publikoa. Ikasleak hiru eraikinetan ezberdintzen dira: Haur Hezkuntzakoak Aita Mariko erakinean, LH eta DBH Sagarbideko eraikinean, eta Batxilergoa eta zikloak Institutuan. Hiru eraikinetan banatuta badaude ere, administratiboki bi eskola bezala funtzionatzen dute, alde batetik, Haur eta Lehen Hezkuntza eta beste aldetik, DBH eta Batxilergoa. Gaur egun guztira 1.256 ikasle ditu eta horietatik 798 ikasle Haur eta Lehen Hezkuntzakoak dira.

Aipatu aurreikuspena dela 2017rako Oikian eskola berria egitea.

Ikastetxeen instalazio eta azpiegiturei dagokienez, asko aipatu den ideia da, ikastetxeetako instalazioak hobekuntza premia handia dutela, batez ere, herri-eskolakoak eta institutukoak. Herri eskolako espazio libreen (patioak, pistak...), egoera eskasa dela jaso dugu, koska arriskutsu asko duen lurra dela eta ez dela egokia, eta patioetan argi falta dagoela azpimarratuz. Horrez gain, herri eskolan eta institutuan espazio falta arazo larria dela nabarmendu da, gela falta dagoelako. Sagarbide eraikinari solairu bat gehiago egitea aurreikusi zuen Hezkuntza Sailak.

Saioetan egindako gogoetan, ikastetxeetako instalazioak herritar eta elkarteentz esku uztea ere proposatu da, herrirako erabilerara zabalduz.

Oikia eta Maria eta Jose ikastetxeen kasuan, mugikortasunarekin erlazionatutako arazoak identifikatu dira, ikastetxeetara joateko bidegorririk ez dagoelako.

Ikastetxeek oro har, harreman ona daukate herriko elkarte eta udal-zerbitzuekin, eta hainbat esparruren lanketan elkarlanean jarduten dute, besteak beste:



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 58

- Euskararen Aholku Batzordean parte hartzen dute, euskararen aldeko ekintzetan elkarlana bideratuz; eta euskarazko eskolaz kanpoko ekintzak sustatzen dira, erabilera eta praktika uztartzeko.
- Sexu-heziketaren arloan ere egin dira lanaketak, eta ikastetxeek ondo baloratzen dute Udalak egindako lana.
- Gizarte-zerbitzuekiko elkarlana ere ona dela adierazi da, hala nola, psikomotrizista terapeutikoa, gurasoentzako aholkularitza... Drogamenpekotasuna eta zeharkako gaien inguruan ikastetxeen arteko elkarlana bultzatzeko aukerak ikusten dira.
- Kiroldegiarekiko harremanak ere onak dira, eguraldi txarra denean, babespean eskola kirola egiteko aukera eskaintzen delako.
- Ingurumenarekin, Algorri Interpretazio Zentroa dela- eta harremanak izaten dira.
- Kultur arloko elkarteekin harremana, bertso-eskola, musika-eskola, dantza, San Telmo sariak...
- Eskola-kirola sustatzeko proiektua

Ikastetxean, herriko elkarteekin laguntzarekin jorratu daitezkeen hainbat gai proposatu dira herriko saioetan: drogak eta alkohola, eskola porrota, teknologi a berrien erabilera egokia, bulling, bideko segurtasuna, memoria historikoa.

Bestalde, Ikastetxeetako arduradunen kezka nagusietako bat gizarte-ohituen aldaketa da. Gurasoek gero eta ordutegi zabalagoak nahi dituzte eta eskari horri erantzuteko garaian ikuspegi ezberdinak daude.


Oro har, azken urteetako jaiotze-tasen hazkundea aztertuz, hezkuntza-alorreko azpiegitura eta instalazioek orain zein etorkizunean ere inbertsio beharra izatea aurreikusten da, horiek egokitu edo berriak egiteko premia sortuko delako. Zumaia, haur eta gazteen beharrei erantzuteko gertu izan behar da.




3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 59

3.4. Haur eta gazteak

Herri gaztea da Zumaia, 0-19 bitarteko gazteak biztanleriaren % 21, 09 direlako eta adin-tartea 29 urtera zabalduz, % 32,53ra igoko litzateke Zumaiaiko gazteen portzentajea. Datuak adin-tarteka aztertuz gero, haxe argazkia:



Iturria: Zumaiaiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen 2014ko memoria



Iturria: Zumaiaiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen 2014ko memoria

Haur eta gazteentzako eskaintza badago azpiegitura hauen bidez: ludoteka (haurrentzat), gaztetxola (gaztetxoentzat), Torreberri gaztetxea, gazteentzat.

Ludotekaren gainean, ludoteka-zerbitzua indartu beharra dagoela aipatu da herritarren saioetan. Egun 6-12 urte dituzten umeentzako zerbitzuak eskaintzerako orduan zenbait zailtasun atzeman dira. Izen-emateko sistema



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 60

aztertu beharra aipatu da. Hau kontuan hartuta, haur hazkundearen datuan arreta jarri eta haurrentzako zerbitzu eta ekipamenduak egokitzeko gertu egotea komeni zaio Zumaiaiko Udalari.

0-6 urte bitarteko haurrei begirako ekintzak antolatzen dira herrian: liburutegiak txikitxoko espazioa dauka beraientzat eta kultur programazioan ere kontuan hartzen da haurraren ikuspegia (liburutegian ipuin kontaketak, antzokian haurrentzako emanaldiak...). Hala ere, adin-tarte horrentzako herrian ekintza gutxi antolatzen direla ere aipatu da herritarren saioan. Eta baita, adin-tarte horretako haur eta familientzat lokal edo ekipamendu falta dagoela herrian.

Haurrek jolasteko parkeak 14 daude herrian zehar sakabanatuta, beheko argazkian puntu horiekin markatuta ikusten dugun legez:



Narrondo, Jadarre (1-3-5-20-22), Axular (1-2-3-), Amaia Plaza, Arrangoleta, Anbulatorioaren aldamenean (Basadi), Aita Mari (43), Alai (6), Puntanueta, Aita Mari ikastetxea, Kantauri plaza, Santiagoko hondartza, Oikia eta San Miguel lirateke hamalauak. Berrienak hauek lirateke: Amaia Plazakoa, Anbulatorioaren aldamenekoa, Oikiakoa. Gehienak herrigunean kokatzen badira ere, kanpoan ere badira jolasteko guneak. Haur parkeei dagokionez, frontoi berriaren ondoan edo Victoriano Arrasate kalean edo Aita Mari plaza inguruan parke berri bat egiteko proposamena egin da.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 61

Gazteen esparruan, gazteentzako aukera anitzak daude Zumaian. Gaztetxola da udalak gaztetxoentzat eskaintzen duen espazioa. Espazio hau bi hezitzailek dinamizatzen dute, eta bertan taldekako zein banakako arreta, gai ezberdinen inguruko tailerrak, joko dinamikoak, eskulan-tailerrak, kanpaldia eta txangoak... lantzen dira. Zuzendutako ekintzak aurrera eramateaz gain, nerabeek beren kasa ekintza librearek egiteko aukera izaten dute: mahai-jokoetan ibili, ordenagailuak erabili, musika entzun, irakurri...etabar. Beti ere, ikuspegi hezitzailea gailenduz.

Gaztetxola txiki geratzen ari denaren aipamena egin da herritarrekin egin ditugun saioetan, erabilera oso mugatua duela, eta ondorioz, lan hezitzailea bideratzeko zailtasunak daudela.

Horrez gain, Zumaia *Gaztematika* sisteman parte hartzen du. Gaztematika Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistema da. Horren baitan honako zerbitzu hauek bideratzen dira modu bateratuan: informazioa, orientabidea, bide-laguntza, aisia hezitzailea, partaidetzarako bideak eta kultura-sorkuntzarako eta produktiorako bideak. Horretarako, zerbitzu-multzo bat eskaintzen da eta adinaren arabera dago antolatuta hiru multzotan: haurrak (12 urtetik beherakoak), nerabeak (13-17) eta gazteak (18tik gorakoak).

Bestalde, Udalak kudeatzen dituen espazioez gain, ZUGA Gazte Asanblada eta Torreberri Gaztetxea daude. Hainbat kanpaina, ikastaro, kontzertu, etab. antolatzen dituzte. Gazte dinamikoak, ekintzaileak eta aktiboak dira, eta herrian ondo baloratzen dira antolatzen dituzten ekimenak. Hala ere, egon da aipamenik gaztetxearen kudeaketa hobetu beharra dagoela adierazi duenik ere eta Biharko Zumaia Boga prozesuaren baitan antolatu diren herritarren saioetan, Gaztetxeko ordezkarien presentzia faltan bota duenik ere.

Bestalde, Euskal Herriko herri gehienetan bezala, Zumaia gazteek ere badituzte beraien lonja edo lokalak, elkargune bezala erabiltzen dituztenak. 2013an Udalak bi hezitzailei eskatu zien horiei buruzko azterketa egiteko. Egindako lanketa txosten batean jaso zuten eta txosten horretan jasotzen da, besteak beste, 8 lokal identifikatu zituztela eta aurrera begirako erronka batzuk ere zehazten dira: gazte-lokalen erabileraren inguruko parte hartzeko prozesua bideratzea. Prozesu horretan, inplikaturik dauden gazte, guraso, jabe, herritarrak eta teknikariak parte hartzea proposatzen dute. Prozesua abiatzeko beharra atzeman bazen ere, ez zen gauzatu. Herritar eta adituek kezka adierazi dute lokal horien segurtasun neurriekiko. Lonjen alokairuaren inguruan arauak zehaztu beharra aipatu da, titularrei baldintza minimoak eskatzu.

Saioetan agertu den beste kezka bat da, gazteak eta teknologian berrien arteko harremanaren gainera, gazteek teknologia berriak nola erabiltzen dituzten kezka eragiten du. Prebentzioa landu beharra azpimarratu da, nahiz gazteetatik haratago ere, baden landu beharreko gai bat.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 62

Zumaiak azken urteetan izan duen hazkunde positiboak herri gaztea izatea eragiten du eta gazte-politika sendoak martxan jartzea eskatzen duelako horrek. Eremu horretan ahul aurkitzen da udalerria, gazte horien beharrei erantzuteko planik ez delako garatu eta gazteen beharrak ere esplizituki jaso eta landu gabe daudelako. Gaztetxeko ordezkarien ikuspegitik, gazteen behar nagusiak honakoak lirateke: egungo gazteek prestakuntza handiegia dute baina irteera laboralik ez; lan prekarioa; egonkortasun ekonomikorik ez; lan bila kanpora joan beharra; dependentzia ekonomikoa eta emozionala... Halaber, gazteek hezkuntza eta prestakuntza bideak hautatzen dituztenean genero-estereotipoek eragina dutela jasotzen da Udaleko berdintasun-planean eta horrek, etorkizuneko lan-baldintzetan eta lan-munduan sartzeko aukeretan inpaktua duela. Nolabait gazteekin batera beraien beharrak jaso eta lantzeko premia dago, genero ikuspegia ere landuz. Plan honetan, haurren ikuspegia txertatzea ere proposatu da herritarren saioetan.

Azpiegituren ikuspegitik, skate park berri bat eraikitzeke proposamen egin da herritarren saioan.

3.5. Kirola

Kirol-ekipamendu eta zerbitzu desberdinak ditu Zumaiak. Eraikin nagusi bezala, Kiroldegia, Aita Mari Futbol Zelaia, Itsas Kiroldegia, Puntanoetako Frontoia (eraikitzen) eta Surflariantzako lokala ditu. Eta Kirol-portuan 550 itsasontzirentzako lekua dago.

Kiroldegia:

Kiroldegiak 30 urte ditu eta honako zerbitzuak ematen ditu: kirol-pista estalia: 44m x 27m (areto-futbola, eskubaloia, saskibaloia, boleibola); harmaila: 400 lagunentzako lekua (300 eserita, 100 zutik); gimnasia-lekua, tatamia: 53 m²; gimnasia-lekuak: 60 m² eta 90m²-ko bi gela; "Ciclo indoor" gela: 62 m²-ko gela (30 bizikletarekin ekipatua); gimnasioa: 100 m² (muskulazio-tresnak); gorputz-tratamendurako gunea: 2 sauna, 2 hidromasajeko gune, Uva izpien gela, masaje-gela; aldagelak; bi igerileku estali; solariuma; tenis-pista (36x18,59 m), 2 paddle-pista (belar artifizialekoak, 20x10 m).

Kiroldegia, oro har, ondo baloratzen da baina zenbait alderdi hobetu beharra azpimarratu da herritarren saioan:

- Instalazioak zaharkituta daude, adibidez, kantxan lur berria jartzeko beharra.
- Prezioak garestiegiak (bazkide-kopurua jaistearen arrazoia izan daiteke?).



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 63

- Igerileku txikiko uraren tenperatura hotza da

Aita Mari Futbol zelaia

Aita Mari Futbol Zelaia, futbol-zelai artifiziala (100 x 60 m) da eta badauka harmaila 250 eserlekurekin. Aurten belar berria jarri zaio futbol-zelaiari.

Futbol-zelakien harira, herri-eskolan futbol-zelaiak, beste jarduerekin alderatuz, espazio gehiegi hartzen duela ere aipatu da.

Itsas kiroldegia:

Itsas kiroldegian, arrauna, piraguismoa eta urpekaritza-kirolak egin daitezke. Kiroldegiak honako zerbitzuak eta azpiegiturak eskaintzen ditu: piragua fosoak: 11,5 m; arraun-fosoak: 14,9 m²; gimnasioa (11,10 m eta 12,11 m); 5 aldagela; gordelekuak eta arrapala. Itsas kiroldegia arraun-elkarteak, piraguismo-elkarteak, urpekariak eta ludotekak erabiltzen dute. Arlo honetan, Itsas kiroldegiaren erabilera herrira zabaltzeko proposamena jaso dugu herritarren aldetik.

Aipatu zenbait ur-kirol egiteko ekipamendu batzuk txiki geratu direla, adibidez, arrauna. Zentzu horretan, beharrak dituzten klubak ekipamenduak osatzea eskatzen da, kirol-ekipamenduetan inbertsioak eginez.

Frontoiak

Frontoi berri bat eraikitzen ari dira Zumaiako institutuaren ondoan eta 700 ikuslerentzako edukiera izango du. Taberna bat egin nahi da frontoian, inguruari zerbitzua emateko.

Herrian ere badaude beste frontoi txiki batzuk, Artadiko frontoia, Odieta (1888koa) eta Oikiako frontoia, esaterako. Odieta gainera gaineko ekarpena izan da frontoiari sabaia gehitzea

Kirola espazio librean

Kirol-ekipamenduetatik harago, kirol-jarduerak espazio publikoan jorratzeko espazio estali gabeak egokitzea proposatu da, hala nola, skate parkea, pilota, multipista egokituak, futbola, basquet...

Honekin lotuta, faroaldean, barraren hasieran, harraldean espazio itxi bat badago eta aspaldi itsasoko urarekin betetako igerileku bat egiteko aukerari buruz hitz egin zen, baina gaia geldirik dago. Herritarren saioetan, oro har, piztina naturalaren ideia garatzen hastearen aldeko hautua egin da.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 64

Beraz, kirol-ekipamenduek inbertsioak behar dituztela ondorioztatu da, eta kirol-ekipamenduak berritzeko plana egitea komeni dela.

Kirol-eskaintza eta zaletasunaren inguruan, aldiz, Zumaia kirolzalea da. Kostako herria izanik, itsas kirolek, arraunak, surfa, etab. garrantzi berezia dutela, baina bestelako kirolak ahaztu gabe.

Udaleko Kirol Sailak urte osoan zehar kirola sustatzeko ekintzak antolatzen ditu, helduei, haurrei eta gazteei bideratutakoak, eta ikastetxeekin batera ere elkarlanean dihardu Eskola-kirola sustatzeko proiektuan. Kirolaren kudeaketa eta koordinaziorako Kirol Mahaia dago, herriko kirol-elkarteetako ordezkariak osatzen dutena. Eta Kirol Patronatua ere badago, Zumaia kirola bere osotasunean gestionatzeko

Kirola herrian oso sasoi onean dagoela esan daiteke eta kirola praktikatzeko duten herritarren kopuruak gora egin du. Horrez gain, lasterketa, txapelketa eta frogak ugari antolatzen da, herriko elkarteetan partaidetza aktiboari esker.

Zumaian kirola 3 taldetan banatu daiteke:

- a) kirol-elkarteak (edo kirol profesionala)
- b) eskola-kirola
- c) guztiontzako kiroleko jarduerak (edo aisialdirako kirol-jarduerak).

a) Kirol-elkarteak

Kirol-elkarteak aztertzen baditugu, 15 kirol-elkarteetan fitxek gora egin dute azken urteotan. Elkarte horietan 2 fitxa-mota bereizten dira, bat errendimendu-kirola praktikatzeko duten fitxak eta bestea aisiarako kirola praktikatzeko duten fitxak. Hurrengo taulan elkarteetan fitxen eboluzioa aztertzen da:

FITXAK 2011/2012			FITXAK 2012/2013			FITXAK 2013/2014		
ERREND	AISIA	Guztira	ERREND	AISIA	Guztira	ERREND	AISIA	Guztira
609	525	1.134	690	583	1.273	642	609	1.308

Iturria: Udaleko kirol saila

Elkarteen artean, esanguratsua da Zumaia Txirrindulari K.E.k izan duen aisiarako fitxen igoera, 2012/2013 urteetan 71 fitxa zeuden eta 2013/2014an 143 fitxatara iritsi ziren. Halaber, Zumaia Itzurrun Surf K.E.k aisialdirako fitxen gorakada izan du: 61 fitxa izatetik 83 fitxa izatera.

Esan daiteke, beraz, elkarteetan partaidetza gero eta handiagoa dela urtetik urtera. Elkarteetan partaideek, gainera, Zumaia kirol txapelketa eta jarduerak nagusiak antolatzen dituzte (arraun-txapelketa, triatloia, boxeo-jaialdia, futbol-



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak ⁶⁵

txapelketa...), Udalaren laguntzarekin beti. Esanguratsua da elkarteek kirol-jarduerak antolatzean eta abiaraztean duten proaktibitate eta eskuzabaltasuna.

Eskola-kirolak pisu handia du Zumaian. Horregatik, 2014an Eskola Kirolaren Batzordea sortu zen eskola-kirola sustatzeko. Gainera, eskola-kirolaren eta kirol-elkarteen artean hitzarmen bat sinatuta dago elkarrekin lan egin eta laguntzeko zenbait arlotan.

b) Eskola-kirola

Eskola-kirolen mailak, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak dira. Partaideek gora egin dute azken urteotan, 2014. urtean izan ezik, beherakada txiki bat izan baitzen, 34 kirolari gutxiagorekin. Honako taula honetan ikusi daiteke partaideen eboluzioa:

	2012	2013	2014
ESKOLA-KIROLA	1.921	2.339	2.273
IGERIKETA ESKOLARRA	427	425	445

Iturria: Udaleko kirol saila

Aipatzekoak dira, alde batetik, benjamin- eta alebin-mailak dituzten partizipazio-mailak infantil- eta kadete-mailarekin alderatuta. 2014. urtean, benjamin-mailako partaideak 982 ziren eta alebinak 1.052; infantilak, ordea 171, eta kadeteak 68. Bestetik, aipatzekoak dira, baita ere, kirol gehien dituzten partaideak, gehienbat benjamin eta alebin mailetan, areto-futbola, atletismoa, futbola, saskibaloia, eskubaloia eta mendizaletasuna direla. Azkeneko bi horiek, 2013. urtetik aurrera sekulako hazkundea izan dute.

c) Guztiontzako kirol-jarduerak

Guztiontzako kirol-jarduerak aztertzean, kiroldegian egiten diren jarduerak eta Zumaian egiten diren probak kontuan hartu behar dira.

Kiroldegian jarduera asko egiten dira (pilates, zumba, igeriketa...) eta partaidetza handia izaten dute, nahiz eta azken urteetan kiroldegiko bazkide-kopurua pixka bat jaitsi izan.

	2012	2013	2014
Kiroldegiko bazkideak	3.287	3.211	3.188

Iturria: Udaleko kirol saila



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 66

Kirol probetarako, kirol-elkarteek laguntza eskaintzen dute beti. Ondorengo taulan ikusi daitezke antolatzen diren proba nagusiak zein diren eta zenbateko partaidetza duten:

PROBA	2012	2013	2014
GABON SARIA	169	134	129
ZUMAIACO II. BIKO LASTERKETA	60	200	260
I. TXAKUR-LASTERKETA	71	70	73
XXVIII. KROS HERRIKOIA	722	807	777
V.ZALDI-LASTERKETA	23	20	20
I. ARRITOKIETA IGOERA	81	82	87
ZUMAIACO XII. 7KO FUTBOL TXAPELKETA	686	674	674
IV. FLYSCH MENDI-LASTERKETA	526	726	630
ZUMAIACO V. OLARRO BANDERA	248	196	160
XVI. ZAKILA-BIRA	624	524	400
GUZTIRA	3.210	3.433	3.210

Iturria: Udaleko kirol saila

Kirol-eskaintza ondo baloratzen dute herritarrek; hala ere, kirol arloa kudeatzeko orduan kontuan izateko alderdiak azpimarratu dituzte:

- Kirol eskaintza zabaltzeko ahalegin handiagoa egin beharko litzatekeela aipatu da eta jardueren berri emateko webgune bat egitea proposatu da. Halaber, kirol-aldizkaria euskaraz egitea ere esan da.
- Kirol arloko antolaketan egiturazko arazo bat dugula aipatu da, hezitzaile egokiak falta direla, alegia. Haur eta nerabeekin jardungo duten kirol-monitoreak prestatu eta formatu beharra dagoela, euskaraz jakitea, genero ikuspegia kontuan izango dituen, hurrekin jarduteko gaitasunak dituen... eskatu beharko litzatekeela.
- Kirolean genero-gaiaren inguruko ikuspegi ezberdinak jaso ditugu. Batzuek kirol arloan, generoaren arabera ekintzak ezberdintzen direla uste dute, eta emakume eta gizonezkoen kirol-praktika ezberdinak direla; beste batzuk, kirol-jarduera ezberdinetan neska eta mutilak orekatuta daudela uste dute, ez dagoela ezberdintasun nabarmenik. Zentzu honetan, martxan da diagnostiko bat gai hau berariaz landuko duena eta neskek kirola egiteko gizonen aukera edo baliabide berdinak dituzten aztertuko duena. genero-estereotipoek, familia-erantzukizunek, zerbitzuen ordutegiek... emakumeen eta gizonen kirol-praktiketan nola eragiten duten ikertuko da. Berdintasun-saila ari da berau kudeatzen eta 2015eko abendurako izango



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 67

dugu emaitza-txostena eskuartean. Aurrera begirako estrategiak ezartzeko interesgarria izango da ikerketa horrek eman duena kontuan hartzea.

Kirol-arloan emandako datu guztiak aztertuz, eta herrian kirolaren praktika gorantz doala aprobetxatuz, kirolean eta kirol-instalazioetan inbertsioa egitea egokia litzatekeela esan daiteke.

3.6. Osasuna

Osasunari dagokionez, Zumaia Osasun Zentroa eta Larrialdietarako Arreta Zerbitzua daude Zumaian.

2008an anbulatorio berria egin zen kiroldegiaren ondoan, eraikin eta ekipamendu berrieekin. Bertan, medikuek eta erizainek prebentzioa eta gaixoen segimendua egiten dute, atentzio espezializatuarekin koordinatuz. Administrazio-izapide guztiak Zentroan egiten dira, Bezeroentzako Arreta Eremuaren bidez.

Anbulatorioan espezialitateak falta direla aipatu da eta zenbait espezialistak (pediatra, kasu) euskaraz ez dakitela azpimarratu da. Asteburuetan zerbitzurik ez izatea ez da ondo baloratzen herritarren artean, eta zerbitzu-medikua zabaltzea proposatzen da. Urgentzietako ordutegia ere luzatzea eskatzen da, 17:00ak arte soilik gutxi dela baloratuz. Guardiako farmazia herrian bertan izan beharko litzatekeela aipatu da.

3.7. Garraioak

Garraio-zerbitzuen ikuspegitik, Zumaia herritarrek eskura dute autobusa zein trena. Trenetan, Donostia-Zumaia-Bilbo bidaia egiten duena dago eta Hendaiarako lotura egiteko aukera ere badago. Autobusak 3 norabide hartzen ditu; Zumaia-Zumarraga, Zumaia-Donostia eta Zumaia-Itziar. Oro har, garraio-zerbitzua ondo baloratzen bada ere, badira herritarrek hobetzeko aipatu dituzten alderdiak:

- Bilborekiko komunikazioa hobetu beharra
- Auzoekiko komunikazioa hobetu beharra
- Gaueko zerbitzua hobetu beharra
- Adineko eta ezinduentzat zerbitzua egokitu beharra

Bestalde Zumaia iristeko, errepide nazionala, N634a da, kostaldetik joateko aukera ematen du itsasertzaren edertasuna erakutsiz. Egia da, ordea, faktore



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 68

klimatologikoek eragiten dituzten kalteengatik askotan egon ohi dela errepide hau itxita. Errepide honi, Zumaiaiko trafikoa arintzeko, saihesbide zati bat egin zitzaion 2009. urtean. Zumaia iristeko autobidea AP8/A8 da. Zumaia-Zarautz zatia 1974ko maiatzaren 1ean zabaldu zen.

Aipatu, mugikortasunaren ikuspegitik alor hau sakonago 1.2 puntuan landu dela.

3.8. Segurtasuna

Herritarren saioan asko aipatu den gaia da segurtasunarena edo hobeto esanda, herritarrek kalean atzematen duten segurtasun-ezarena (emakumeak eta haurrak, batik bat). Segurtasuna hobetzeko neurriak hartu beharra azpimarratu da, eskoletako patioetan argiak ezarri, herriko puntu ilunetan argiak jarri, auzoetan mantentze-lanak eginez eta udaltzaingoaren zerbitzua gauera arte luzatuz. Gaueko udaltzaingoa berreskuratzeko ideia baten baino gehiagotan aipatu da.

Segurtasun eza eragiten duten gune beltzak identifikatzeko lanean ari da Udala une honetan berdintasun-sailetik. Martxan da puntu beltzen mapa osatzeko proiektua eta 2015eko abendurako izango dugu proiektu honen emaitza-txostena. Aurrera begirakoak lantzeko orduan, kontuan hartuko dira proiektu honetako ondorioak.

Alai auzategitik eskaera zehatz bat etorri da: zonalde hori udaltzaingoaren komisariorde batekin hornitzea.

Bestalde, komun publikoen egoera ez dela ona eta garbi mantentzeko neurriak hartzea eskatu da.

3.9. Beste administrazio publiko batzuei atxikitako eraikin hutsak

Aurrez aipatutako lokalez gain, badaude gaur egun hutsik dauden hiru espazio, beste administrazioa batzuei atxikitakoak direnak eta hutsak daudenak, hala nola:

- Anbulatorio zaharra, momentu honetan Eusko Jaurlaritzarena dena.
- San Juan egoitzaren ondoko eraikina (monjen etxea), Udalarena dena
- Guascor zaharra, Eusko Jaurlaritzarena dena.



3. Zerbitzuak eta ekipamenduak 69

Aurrez, kulturako puntuan azaldu bezala, eraikin huts hauek kontuan hartzea eskatzen da, eraikinen erabilera-plangintza eta erabilera-irizpideak aztertu eta zehazterakoan.


Ziiz ondare industrialak eta turismo bulegoa mollaberriko eraikin estrategikoan kokatzea edo Urolako estazio zaharrera aldatzeko proposamena ere jaso da saioetan.



4. Herrigintza eta elkarbizitza 70

4.1. Hizkuntza

Zumaia UEMako (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da eta Zumaia etortzen denak berehala nabaritzen du euskara dela nabarmen hizkuntza nagusia. Zumaia biztanleriaren % 71,1 euskalduna da.



Iturria: Soziolinguistika Klusterreko 2014ko azterlana

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaerari erreparatuz, azkeneko 25 urteetan, oro har, euskara ezagutzen duten biztanle-kopurua 5 puntu igo da, eta euskaraz ezer ere ez dakiten biztanleak ere kopuru berean jaitsi dira.

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Euskaldunak	5.220	67%	5.406	68%	5.894	73%	6.065	73%	6.155	72%	6.542	72%
la-euskaldunak	1.236	16%	1.092	14%	1.064	13%	1.197	14%	1.361	16%	1.446	16%
Erdaldunak	1.392	18%	1.470	18%	1.134	14%	1.032	12%	1.072	12%	1.156	13%
Hiztunak	7.848	100%	7.968	100%	8.092	100%	8.294	100%	8.588	100%	9.144	100%

Iturria: Soziolinguistika Klusterreko 2014ko azterlana

Hala ere, azken 10 urteetako datuan zentratzen bagara, hizkuntza-gaitasunean jaitsiera eman dela ikus dezakegu (% 73tik % 72ra).

“Herri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa EAEn, 1981-2011” ikerlanean Iñaki Lurrebasok azken 30 urteetan udalerri euskaldunetan (euskaldun-kopurua % 70etik gora dutenak) euskarak izan duen bilakaera aztertzen du, hiru aldagai kontuan hartuta:

- Hizkuntza-gaitasuna
- Lehenengo hizkuntza




4. Herrigintza eta elkarbizitza 71

c) Etxeko hizkuntza

a) Hizkuntza-gaitasuna:

Gaitasunari dagokionez, Ikerlanaren ondorioetako bat da EAEn azken 30 urteotan euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruak gora egin duela nabarmen, baina udalerri euskaldunak begiz joz gero, bilakaera goitik beherakoa izan dela ondorioztatzen da: 1981-1991 bitartean gaitasunak pixka bat gora egin zuen, 1991-2001 artean hortxe mantendu zen, eta azkeneko hamarkadan behera egin du. Beraz, duela 10 urte baino euskaldun gutxiago dago herri horietan, eta Zumaia da horietako bat, nahiz eta jaitsiera oso txikia izan.

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera



Testuinguru horretan, Zumaia ere joera horri jarraitu diola esan genezake, nahiz eta ondoko grafikoan ikusten den moduan, beste udalerri euskaldunek baino bilakaera hobea izan duen. Ezagutzari dagokionez, gainerako herri euskaldunetan baino gehiago aurreratu da Zumaian azken 30 urteetan, % 59tik % 72ra pasa baita.




4. Herrigintza eta elkarbizitza 72

b) Lehenengo hizkuntza:

Ikerketaren beste ondorioetako bat da lehen hizkuntza euskara zutenen kopurua eta etxeko erabilera gehiago jaitsi dela udalerri euskaldunetan, EAEko gainerakoetan baino. Joerari dagokionez, Zumaia ere bilakaera berbera izan du, baina beste udalerri euskaldunen bilakaera orokorrarekin alderatuz, beherakada txikiagoa izan du Zumaia:

Lehen hizkuntzaren bilakaera




Lehen hizkuntzari dagokionez, Zumaia kasuan ez da hainbeste jaitsi, % 60tik % 56ra. Beraz, gainerako herri euskaldunek baino bilakaera hobea izan du Zumaia.

Iturria: Herri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa EAEn, 1981-2011. Iñaki Iurrebaso.

c) Etxeko hizkuntza:

Etxeko erabileraren bilakaera



Etxeko erabilerari dagokionez, beherakada orokorra baino txikiagoa izan da Zumaian, % 47tik % 45era.

Iturria: Herri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa EAEn, 1981-2011. Iñaki Iurrebaso.



4. Herrigintza eta elkarbizitza 73

Beraz, esan genezake, Zumaiak azken hamarkadetan euskarari dagokionez, eta aztertutako aldagai horietan (gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko erabilera) beheranzko izan duela. Hala ere, EAEko udalerri euskaldunekin alderatuta, bilakaera-datu positiboak ditu Zumaiak.

Bestalde, kale-erabilerari dagokionez, entzuten diren elkarrizketen erdiak baino gehiago (% 52) euskaraz dira, eta erabilera handiena 15-24 urte arteko gazteen artean ematen da (% 70). Gaztelania erabiltzen da kasuen % 45,8an. Gazteen erabilera positibotzat jo da herritar eta adituen saioan; aldiz, oro har, euskararen erabilera % 52koa izateak zalantza eragin du herritar bat baino gehiagotan, portzentaje horrekin herri euskalduna dela baieztatu dezakegun zalantza eginez. Euskararen erabileran aurrera egiteko, ez dakienari lagundu eta dakienari hitz eginarazteko hizkuntza-jarrerak landu beharraz jardun dute herritarrek antolatutako saioan.

Bertako euskarak oso gertuko du Itziarko hizkera eta, neurri handi batean, baita Getariakoa ere. Hala ere, herrian bertan ere bi hizkera bereizten dira: kaletar-arrantzaleena eta baserritarrena. Azken horiek gertuago dituzte Aizarnazabal eta Zestoako hizkerak. Euskalkiez gain, batuera ere erabiltzen da Zumaian. Zumaiako hizkera galtzen utzi behar ote dugun atera da herritarren saioetan, eta bertako hizkera indartzeko neurriak hartzea proposatu da.

Hezkuntza-ereduaren ikuspuntutik, Zumaiako ikastetxe guztietan D ereduak da nagusi.

Euskararen sustapenari dagokionez, euskararen normalizazioa bultzatzen du Zumaiak Euskara Zerbitzuaren bidez eta euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko programak eta ekintzak kudeatu eta garatzen ditu, udal barruan zein kanpoan. Momentu honetan martxan dira Udaleko barne-erabilerarako plana eta baita udalerrian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

Horrez gain, beste hainbat programa daude martxan: errotulazioak euskaraz jartzeko diru-laguntzak ematea; merkatariei eta enpresei itzulpenak egin eta hizkuntza-aholkularitza ematea; euskarari buruzko ikerketak bultzatzea; euskarazko sorkuntza bultzatzea; urtero hizkuntzarekin lotutako gaiak lantzeko hitzaldi-zikloa antolatzen da 'Euskara, bestela ez gara'; kirol-elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko helburua duen Euskara Sasoian programa, etab.

Etorri berrientzat ere zerbitzu berezituak eskaintzen ditu, haur eta gazteentzat hizkuntza-errefortzuko programak, ludoteka, helduentzat euskara ikasteko programa berezituak (Txomin Agirre AEK euskaltegia)... Horrekin batera, Udalak diru-laguntzak ematen dizkie euskara-ikastaroak egiten dituzten herritarrei. Zumaian erroldatua egotea eta ikastaroaren asistentzia gutxienez % 80koa izatea dira bete behar diren baldintzak. Euskara ikasteko baliabideen



4. Herrigintza eta elkarbizitza 74

inguruan, horiek indartzea proposatu da herritarren saioetan euskaldun berriei ez ezik, euskaldun zaharrei ere erraztasunak ematea idazketan hobetzeko.

Aurrez aipatu bezala, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana martxan du Udalak 2005etik eta planaren helburu nagusia euskaraz bizi nahi duten herritarrei aukera hori bermatzea da, horretarako behar diren hizkuntza-politikako neurriak eta erabakiak bultzatuz. Hainbat esparru edo arlotan bultzatu nahi da euskara, horrekin euskararen transmisio, erabilera eta elikadura egokia lortzeko.

Planaren gidaritzan lagunduko duen talde edo batzorde berezi bat badago, Euskararen Aholku Batzordea izenekoa, herriko hainbat taldek eta norbanakok osatutakoa. Urtean 6 bat aldiz elkartzen da, planari segimendua egiteko. Honela osatuta dago:

- Herriko ikastetxeak: Herri Eskola, Maria eta Jose eta Institutua.
- Herri Eskolako guraso elkarteak.
- Kultur elkarteak: Erkibe,
- Kirol-taldeak: Pulpo.
- Merkatari-elkarteko ordezkari bat.
- Euskararen inguruko taldeak: AEK.
- Norbanakoak.
- Udalaren izenean: euskara-zinegotzia eta euskara-teknikaria.

Udalerriko ikuspegiarekin lan egiteaz gain, eskualdeko ikuspegiaren ere lan egiten du Zumaiaiko Udalak, Urola Kostako Udal Elkarteko Euskara Zerbitzuak gidatutako hainbat ekimen eta programetan parte hartzen baitu, eskualdeko udalerriekin elkarlanean: kirol-arloan euskara sustatzeko ekimenak, euskara Internet bidez ikasteko zerbitzua, mintzalaguna, merkataritza euskalduntzeko plana, eta beste ekimen batzuk.

Zumaian euskarazko kultura eskaintza da nagusi, eta euskal kulturgintzaren transmisioan sakondu asmoz, etorkizunean euskara eta kultura uztartzeko proposamena egiten du Xabier Azkuek bere Euskura azterlanean. Zumaiaiko euskal kulturazko edukiak baditu, kultura-eskaintza aberatsa dagoelako herrian.

Euskarazko herri komunikabideetan ere ondo kokatzen da Zumaia, *Baleike* herri-aldizkaria eta *Baleike.eus* webgunearekin. *Baleike* Aldizkaria, hilero argitaratzen da eta 3.000 irakurletik gora ditu herrian. *Baleike.eus* Zumaiaiko eguneroko albisteak lantzen dituen komunikabidea da eta ikusentzunezkoak, blogak, komunitatea bezalako guneak ditu. Herri-aldizkariak eta webguneak funtzio komunikatibo garrantzitsua betetzen dute herrian, informazio emaila izateaz gain, herritarrek edukiak eta iritzia publikoa sortzera bideratzen baititu.



4. Herrigintza eta elkarbizitza 75

Horrekin lotuta, Urola Kostako Hitzak ere laguntzen du euskarazko informazioa elikatu eta zabaltzen. Arlo honi dagokionez, eskualdeko komunikabideak batzeko proiektua abian jarri zen duela zenbait urte baina ez da momentuz berriz hartu.

Esandakoei erantsiz, hobetzekoen artean edo aurrera begirakoan kontuan hartzeko lan-ildoak hauek lirateke:

- Ikasleen % 100ak B2 hizkuntza-maila lortzeko neurriak hartzea
- Udaleko langileen % 100a elebiduna izatea lortzea.
- Adinagatik hiztun trebe izatera iritsiko ez diren herritarrek “hiztun pasibo” izatera iristeko, irakurmen- eta entzumen-maila egokia lortzea. Euskara eta gaztelaniaz uztartzeko estrategiak bilatu behar direla azpimarratu da herritarren artean. Horrekin lotuko genuke, euskaraz hitz egin ez, baina ulertzeko gai direnak identifikatu eta prestigiatzea.
- Gazteek eta beste jatorri batekoek euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea, komunikazio-teknologien bidez.
- Erakundeen artean elkarlanean aritzea euskararen aldeko ekintzak bideratzeko.
- Eskolaz kanpoko ekintzak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dutenak.
- Herritarren gehiengoa elebiduna den guneeetan, euskara lehen hizkuntza funtzionala izateko neurriak hartzea.
- Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea.
- Euskara Zumaiako arlo guztietan lantzea zeharkakotasunez.
- Euskararen arloko ikerketa aplikatuetan parte hartzen jarraitzea.



4. Herrigintza eta elkarbizitza 76

4.2. Aniztasuna

Komunitate anitzen arteko ezagutza-, aitortza- eta bizikidetza-proiektuak egiteko ezinbestekoa da errealitate hori kontuan hartzea. Zumaiaaren kasuan, % 17,6 dira Euskal Herritik kanpo jaiotakoak (%11,6 Espainian, eta % 5,8 beste herrialdeetan); ondorioz, aniztasuna kudeatzeko eta elkarbizitza sustatzeko baldintza egokiak daude.

Horrela, Zumaiaiko Udalak, aniztasunaren fenomenoan sakondu eta herritarren elkarbizitza sustatzeko, elikatzeko eta sortzeko baldintza egokiak bermatzeko asmoz, gaiaren inguruko hainbat egitasmo bultzatu ditu azken urteetan:

- 2012. urtean, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Onki Xin Harrera Egitasmoa Zumaian martxan jartzeko proposamena landu zuen, Zumaia bizitzera etortzen den orori harrera duina egiteko helburuarekin.
- 2012-2013an beste jatorri bateko zumaiaarren inguruko ikerketa kuantitaboa eta kualitatiboa egin zen (Aztikerrek).
- 2014. urtean herritarren aniztasuna sustatzeko hainbat proiektu garatu ziren: batetik, aniztasunean bizi izeneko eskualde mailako proiektua; ipuinen bidez haurrekin aniztasuna landu proiektua; eta Anitzen sarea sortzeko proiektua.

Anitzen Sarea proiektua martxan da egun eta sare hori martxan jartzeak, herrian aniztasunaren gaineko hausnarketa egitea eragin du. Zumaiaiko kultur eta jatorri desberdinetako herritarren arteko harreman-, ezagutza-, errespetu- eta aitortza-maila lantzeko proiektua da eta 17 elkarte hartu dute parte hausnarketa-prozesuan. Interesgarria da hausnarketa honetako ondorioak laburbiltzea, aniztasunaren gaia Zumaian nola bizi den eta ikusten den ondorioztatzeko.

Anitzen Sarean, 3 mailatan egin da diagnosis:

- a) Hezkuntza, kirola eta aisia
- b) Gizarte-gaiak
- c) Kultur eta identitate-elkarteak

a) Hezkuntza, kirola eta aisia

Hezkuntza, kirola eta aisiaren eremua aniztasuna lantzeko bereziki indartsua da, eremu horietan jatorri eta kultura desberdineko jendearen arteko harremana ematen delako eta Zumaia herri txikia izateak, kirol- eta hezkuntza-eskaintza



4. Herrigintza eta elkarbizitza 77

nahiko bateratua izatea dakar. Beraz, aniztasuna lantzeko gune potentziala dela esan dezakegu.

Halaber, alor honetan identifikatu da baita, etorri berriek, sortzen dituzten harremanetan, sarritan mendeko rolak hartzen dituztela, eta integratziorako zailtasunak sumatzen dituztela, zumaiarek kuadrillaka biltzeko duten kultura dela medio, hizkuntza xenofoboaren erabilera-zantzuak...

Zentzu honetan, ideia bat da kirolaren arloan, harrera-protokolo edo -prozedura bat egitea. Edota, aniztasuna lantzeko espazioak eratzea, fisikoak (tokiak, guneak...) zein fisikoak (aniztasunaren presentzia festetan, ferietan, elkarrekin...).

b) Gizarte-gaiak:

Gizarte-gaien eremuan egindako hausnarketetatik, herritarren arteko jarrera nagusiki tolerantzia dela aipatzen da. Era berean, Zumaia herri txikia da eta harremanak egiteko errazagoa dela azpimarratzen da, ez dagoela anonimotasunik.

Hala ere, aniztasunaren gaia presente badago ere, aurreiritzietan lanketa sakona egin beharra dagoela azpimarratzen da. Jatorri eta kultura desberdineko jendearen artean dauden harremanetako modu desberdinek errezeloak eta zailtasunak sortzen dituzte; era berean, herriaren tamaina txikia batzuetan oztopo ere izan daitekeela esaten da, elkarrekintzarako aukera gutxiago dagoelako.

Kulturen arteko elkarriketa gehiago sustatzea litzateke landu beharreko erronka.

c) Kultur eta identitate-elkarteak

Kultur eta identitate-elkarteen sektorean, herria lasaia dela eta etnien artean gatazkarik ez dagoela aipatu da. Gainera, espazio soziokultural ugari eta komunikazio-bide irekiak daudela elkar ezagutzeko..

Halaber, zumaiaarren artean emigrante eta lokal dikotomia oso barneratua dagoela aipatzen da. Pertsonak eratzen dituzten taldeak oso txikiak dira eta etniak bereizita egoten dira. Horrez gain, hizkuntzaren auzia ere badago, euskara ez jakitea elkarbizitzarako zailtasuna dela nabarmenduz.

Integratzioa gauzatzea, jatorri eta kultura bakoitzaren izaera mantentzea, eta integratzioaren gaia eskolan txikitatik lantzea lirateke landu beharreko ekimenetako batzuk.

Ondorio hauen berri eman da arlokako herritarren saioan eta oro har, aniztasunaren gaia landu den arren, zailtza ageri da herrian benetan



4. Herrigintza eta elkarbizitza 78

aniztasunaren gaiarekiko interesa zabaldua dagoen. Hausnarketa gehiago zabaldu beharko litzatekeela aipatu da eta Anitzen Sareko lantaldea egonkortzeko bidean, eragile gehiago inplikatu. Honek bat egiten du nolabait Anitzen sareko txostenean jasotako etorkizuneko erronkarekin: prozesuan parte hartu ez duten elkarteekin harreman- eta komunikazio-prozedura zehaztea, eta elkarteetan antolatuta ez dauden herritarrei lekua eskaintzearekin. Aldi berean, hezkuntza formalaren eremua funtsezkoa izanik, eskola eta ikastolak proiektura erakartzea ere erronka litzateke, eta era berean, baita Udalaren eta Sarearen arteko harremana nola garatuko den ere zehaztea ere.

Arlo honetan ekarpena egin duten herritarren artean, aurreiritzietan lanketa sakona egin behar dela azpimarratu dute, eta emigrante eta lokal dikotomiaz gain, beste dikotomia bat ere badagoela esan da: Zumaiarrak eta espainolak. Bi Zumaia daudela aipatzen da eta bi mundu horien arteko zubiak eraiki beharra dagoela.

Bestalde, etorri berrien bizi-baldintzak eta integrazioa hobetzeko asmoz, hainbat proposamen egin dira saioetan:

- Etorri berriei harrera egiteko aterpetxea urte osoan zabalik egotea. Honekin lotzen da baita hurrengo ekarpena, interna bezala lanean diharduten emakume etorkinek herrian etxe baten beharra dutela, zaintzen duten pertsona hiltzen denean kalean geratzen direlako.
- Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea, etorkina interna bezala etxe batean badago eta bertan lo egiten badu betebeharra dela erroldatzea eta delitua dela erroldatzeagatik kobratzea edo kaltetzea.
- Anitzen sarean dabiltzan elkarte eta norbanakoek Udaleko teknikariarekin harreman hurbila izateko, fisikoki ere hurbil izatea (Alondegian)
- Gizarte Zerbitzuetatik, etorri berriei zuzendutako zerbitzuak indartu behar direla eta integrazio-politikak sustatzeko lanean aurrerapausoak egitea.
- Aniztasuneko ekitaldietan, hizkuntzak nola kudeatu aztertu beharko litzatekeela.
- Etorkinak herriko egitasmo, ekintza eta festetan parte hartzea sustatu, eta; integrazioa sustatu, herriko zerbitzuak (euskara, kirola, parte-hartzea...) beraien esku jarritz..



4. Herrigintza eta elkarbizitza 79

4.3. Berdintasuna

Berdintasunean oinarritutako gizartea eraikitze bidean urratsak eman ditu Zumaiaiko Udalak eta herriak. Egun II. Berdintasunerako Plana dago martxan¹ eta helburu hauek programak eta ekimenak garatzea du xede:

- Aukera-berdintasunari dagokionez, udaleko esku-hartzea bultzatzea eta indartzea.
- Zumaiaiko emakumeek gizartean parte har dezaten indartzea eta gehitzea.
- Hiriko emakumeen beharrei erantzun integrala ematea.
- Errespetuzko, elkartasuneko eta berdintasuneko balioak garatzea, heziketaren, prestakuntzaren eta informazioaren bitartez.
- Emakumeen aurkako bazterkeria- eta indarkeria-jarrerari aurrea hartzea. Udalak indarkeria kasuetan jarraitu beharreko protokoloa eratu du hainbat erakunderekin batera, euren arteko koordinazioa bermatzeko, eta ahalik eta arretarik egokiena eskaintzeko indarkeria pairatu dutenei.

Plan honen garapenerako Udalak berdintasun-saila dauka eta bere helburua da emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko politika bultzatzea. Horretarako baina, beharrezkoa da herritarrek esku-hartzea, botere publikoak eta erakundeak lankidetzan jardutea eta Udaleko sail guztiek zeharkako ekintza koordinatua garatzea. Zentzu horretan, Berdintasun-politikak bideratu eta gauzatzeko, Zumaiaiko Udalak Berdintasun Foroa eratua du, herriko emakumeez osatua dagoena. Gainera, beste herri-administrazio batzuekin ere lan egiten du, esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta beste hainbat udalekin.

Berdintasun-planean hainbat arlo lantzen dira eta bakoitzaren egoera jasoko dugu labur jarraian:

Gizarteratzea:

Gizarteratzearen alorrean, emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko tokiko protokoloa diseinatu eta ezarri da, eta urtero baloratu eta hobekuntzak egitea proposatzen da. Baina era berean, aipatzen da herrian ez direla indarkeria sexistari aurre egiteko Udalak eskaintzen dituen baliabideak ezagutzen; eta Gizarte Zerbitzuetan artatzen diren indarkeria matxista kasuen jarraipena eta bide-laguntza egiteko zailtasunak daudela adierazi da.

Arlo honetan, prebentzioa lantzen eta erasoei erantzuteko, emakumeen ahalduntzea bultzatzen jarraitu beharra dagoela azpimarratzen da.

¹ 2009. urtean Zumaiaiko Udalak, Emakunde eta Euskadiko "Fondo Formación"-ek "Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnosia" egin zuten, eta horren haritik, 2010-2014ko Berdintasun Plana onartu eta gauzatu zen. 2014an, I. Planaren ebaluazioa egin ondoren, II. Berdintasunerako Plana diseinatu zen



4. Herrigintza eta elkarbizitza 80

Lan-mundua:

Lan-munduari dagokionez, Zumaiako emakumeak, batez ere, zerbitzuen sektorean kontzentratzen dira, eta enpresa industrialetan txertatzeko zailtasunak dituzte, besteren artean, horietan jarduteko prestakuntzarik ez dutelako jaso. Izan ere, gazteek hezkuntza eta prestakuntza bideak hautatzen dituztenean genero-estereotipoek eragina dute eta horrek, etorkizuneko lan-baldintzetan eta lan-munduan sartzeko aukeretan inpaktua du.

Ondorioz, errentetan ezberdintasun esanguratsuak sortzen dira gizon eta emakumeen artean. Ezberdintasun horiek Urola Kostako handienak dira, gizonezkoen errenta emakumezkoen % 194,4 delako. Oraindik esanguratsuagoak dirudite Gipuzkoako (% 168,6) eta EAEko (% 173,8) batatz bestekoarekin alderatuz.

Sexuaren aldagaia aintzat hartuta, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino ia 3,5 puntu handiagoa izan da. Eta, lan erreproduktiboari dagokionez, generoaren arabera banaketa ematen da.

Arlo honetan, lanerako hainbat ildo proposatzen dira:

- Etxeko lanetan emakumeen eta gizonen bateragarritasuna sustatzea eta gizarte-antolaketa erantzunkidea sustatzeko dauden gizarte-zerbitzuen egokiera aztertzea.
 - Instituzioen konpromisoa handitzea emakume etorkinen giza eskubideen urraketa aurrean.
 - Zaintza-komunitatean egitea sustatzea eta arazo komunei modu bateratuan erantzuteko, auzokideen autogestioa sustatu
 - Etxeko eta zaintza-lanetan dabilzan emakume langileen egoeraren inguruko azterketa bultzatzea. Gai honek izan du herritarren saioetan presentzia eta hainbat emakumeen egoera prekarioa bisualizatu beharra dagoela esan da. Halaber, interesgarritzat jo da emakumeen langabezia-tasan zenbat eragiten duen etxeko lanetan dabilzan emakume horiek guztien proportzioak. Etxeko lanetan diharduten emakumeak ere gizartearen garapen ekonomikoan ekarpena egiten dutela eta sektore baten integratzeko beharra azpimarratu da.
- Errentetan dauden desberdintasunak ere izan dira hizpide eta aipatu da datua adin-tarteka eta egoera zibilaren arabera aztertuz gero, alargunen egoera agertuko litzatekeela, desberdintasunak are handiagoak izanik, segur aski. Hipotesi hori ezin izan dugu datuekin baieztatu, sarean ez daudelako korrelazio hori egiten duten daturik baina interesgarria iruditu zaigu jasotzea, kontuan hartzeko aldagai gisa.
- Ekonomia solidarioa eta feministatik eraiki herria, zumaiar guztiak integratuko dituen.



4. Herrigintza eta elkarbizitza 81

Hirigintza:

Hirigintzaren inguruan, emakumeen % 33k herrian ziurgabetasun-sentsazioa sortzen duten lekuak daudela uste du. Arlo honetan martxan da puntu beltzen mapa osatzeko proiektua eta 2015eko abendurako izango dugu proiektu honen emaitza-txostena. Aurrera begirakoak lantzeko orduan, kontuan hartuko dira bertan jasotzen diren ondorioak.

Bestalde, herriko elementu sinbolikoek ez dute emakumeek herriari egindako ekarpena aitortzen. Alderdi hau ere azpimarratu da saioetan, emakumeen ekarpena aitortzeko, kale eta eraikinei emakumeen izenak jartzea proposatu da, adibide gisa, EHUK izendatutako Elbira Zipitria eraikina erabili da.

Kirola:

Zumaian emakumeek kirola praktikatzea nahiko ohikoa bada ere, gizonen emakumeek baino gehiago praktikatzen dutenaren ustea dago eta horretan sakontzeko ikerketa bat abian da. Ikerketa horren helburua da, genero-estereotipoek, familia-erantzukizunek, zerbitzuen ordutegiek... emakumeen eta gizonen kirol-praktiketan nola eragiten duten ikertzea. Berdintasun-saila ari da berau kudeatzen eta 2015eko abendurako izango dugu emaitza-txostena eskuartean.

Gai hau atera da egindako saioetan eta ikuspegi ezberdinak izan dira herritarren artean, batzuentzat desoreka dagoen neurrian, besteentzat oreka dagoelako eta desberdintasunik egotekotan, nabarmena ez dela esan da. Ikerketaren emaitzek lagunduko digute gai honen lanketa bideratzen eta aurrera begirako estrategiak ezartzeko interesgarria izango da emaitza horiek kontuan hartzea.

Bestalde, kirol-elkarteetan emakumeen partaidetza sustatzeko lanean jarraitzea ere bada lan-ildoetako bat.

Kultura:

Kulturan generoaren araberako ekintzak ezberdintzen direla, emakumeak direlako herriko kultura-zerbitzuen erabiltzaile nagusiak. Horregatik, kultur ekitaldietan emakumeen eta gizonen parte hartzeko kultura ezberdinen arrazoiak aztertzen jarraitu nahi da, eta herritarrak berdintasunean sentsibilizatzen jarraitzea.

Interesgarritzat jotzen da baita maskulinitatearen inguruko gizonen hausnarketa herrian bultzatzea.

Aipatu alor honetan biolentzia sexista prebenitzeko kanpainak egin direla jaietan.



4. Herrigintza eta elkarbizitza 82

Hezkuntza:

Ikastetxeetan hezkidetza lantzeko ekimenak egiten dira, adibidez, azaroaren 25eko ekintza bateratua. Halaber, eskola-materialaren bidez genero-rolak transmititzen dira. Zentzu horretan, herriko ikastetxeei berdintasuna lantzeko tresnak ematen jarraitzea garrantzitsutzat jotzen da, hezkidetza-programak modu sistematikoan garatuz.

Arlo honetan ikergai interesgarritzat jotzen da hezkuntza arautuan nahiz ez arautuan genero estereotipoek eta rolak nola transmititzen eta erreproduzitzen diren ikertzea.

Diagnosiko ondorioa da baita, eskola-eremuko erantzukizunak batik bat amaren gain daudela; hori dela-eta, aiten parte hartzea sustatu nahi da eskola-eremuko erantzukizunetan.

Udala

Teknikari bai politikariek genero ikuspegiaren arabera lan egiteko berariazko tresnak diseinatu eta garatu beharra dago, adibidez, udaleko arlo guztietatik generoaren begirada txertatzeko prestakuntza egitea, udal estatistika guztietan sexuaren araberako datuak jasotzea, zeharkako gaiak lantzeko sailen arteko lankidetza eta koordinaziorako egiturak sortzea,...

4.4. Bakegintza eta memoria historikoa

Asko landu gabeko arloa da bakegintza eta memoria historikoarena. Egindako lana, Erkibe kultur elkarteak egin du bereziki eta aitortu behar da lan handia egin dela. Gaiari sakondu beharra dagoela aipatu da saioetan eta behintzat eginda dagoen lana zabaldu egin beharko litzatekeela, besteak beste, ikastetxeetan hitzaldian emanez, bloga, besteen sufrimendua eta ezagutza partekatzeko ekimenak bultzatuz eta errekonozimendua aitortzeko ekimenak martxan jarritz.

Gaiari aztertzen eta sakontzen jarraitzeko udal artxiboa egokitu beharko litzatekeela esan da.



4. Herrigintza eta elkarbizitza 83

4.5. Elkartegintza eta partaidetza

Zumaia tamaina ertaineko herria da, ez handia eta ez txikia, bizitzeko erosoia eta bizi-kalitate handikoa, estimu handiko osagai ugari dituelako: kokapena (kostaldean, hiri handiagoetatik gertu), zerbitzu egokiak (garraioa, hezkuntza...), aisialdiko eskaintza...

Herri bizia eta dinamikoa da, eta horren adierazgarri da hainbat elkarte egotea, era askotakoak:

- Kiroletakoak: eskubaloia, futbola, arrauna, piragua, mendia, txirrindularitza, surfa, pilota...

Kirol-elkarteak badira Zumaian: Anade K.E, Zumaiaiko Txirrindulari K.E, Zumaiaiko Triatloi K.E, Pulpo K.E, Zumaiaiko K.E, Inda Mendi K.E, Zumaiaiko Futbol Taldea, Zumaiaiko Telmo Deun Arraun K.E, Itxas Gain K.E, Golf Karakas, Zumaiaiko Itzurun Surf K.E, Olarru Sub K.E, Bela Zumaia K.E, Kuban Boxing K.E, Judo Kodaore K.E, Zumaiaiko Taekwondo K.E., Zumaiaiko Futbol Taldea.

- Kultura-elkarteak edo aisialdiarekin lotutakoak: zine-foruma, abesbatzak, dantza, argazkilaritza, irakurzaletasuna, bertso-eskola, musika-banda, musika-taldeak

Udal Musika Banda, San Pedro Abesbatza, Beheko Plaza Abesbatza, Txistulari Banda, Ostarrena Zine Forum Taldea, Unión Cultural De Comunicaciones, Jakintza Kultur Elkartea, Erkibe Kultur Elkartea, Inpernupe Kultur Elkartea, Dardara rock kolektiboa, Nimba dantza afrikarra, Astindu dantza elkartea, Txori Txiki musika eskola, Inpernupeko Joaldunak, Gune gogoeta taldea, Arbustain motor-elkartea, Baleike kultur elkartea, Distira argazki-elkartea, ZIIZ-Industria-ondarea, Beduola - ontzi ondarea, Yereguitarrak, Bertso eskola.

- Ingurumen-elkartea: Zumaiaiko Natur Taldea.
- Merkataritza-taldea: Zumaiaiko Merkataria eta Ostalari Taldea, Zumartian.
- Euskara-taldeak: Baleike Kultur Elkartea, Zumaiaiko Bertso Elkartea.
- Talde sozialak:

Zumaiaiko Karitas, Lourdeseko Amaren Begi Elkartea, Odol Emaileen Elkartea, Alkoholiko Anonimoak, Al-Anon, Zumaiaiko Darahli Elkartea, ONG Zumaia Munduan, Kongo Lagun Elkartea, Nava Jeevan Elkartea, Beheko Plaza Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartea, Nagusilan Elkartea.

- Jai batzordeak:



4. Herrigintza eta elkarbizitza 84

Artadiko jai-batzordea, Oikiako Mantzior elkarte, Narrondoko jai-batzordea, Estazioko jai-batzordea, Alaiko jai-batzordea.

- Elkarte gastronomiko ugari

Elkarteen arteko harremanak ehundu eta elkarbanatzea da Zumaiaren helburu nagusietariko bat. Hurrengo orrian Zumaiako kultura-eragileen mapa eta sarea jaso dugu, beraien arteko konexioak zein diren ikusteko.

Konexioak badaude, baina talde desberdinen arteko elkarlana sustatu beharra eta elkarren arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetu beharra azpimarratu da herritarren saioan. Halaber, udala eta taldeen arteko koordinazioa ere landu beharra dagoela azpimarratu da. Udalaren aldetik, diru-laguntzen kudeaketan, adibidez, gardentasun gehiago eskatzen dute elkarte batzuk. Aipatzen da diru-laguntzen banaketa orekatuagoa izan beharko litzatekeela, horrela elkarte txikiek ere aukera berdintasunean hazteko aukera izateko. Elkarte berriei ere arreta jartzea eskatzen da eta laguntasunak ematea, adibidez, beraien ekintzak antolatzeko lokalak bermatuz.

Herrigintzaren ikuspegitik, izaera aktibo bat dago, herritarrek hainbat ekintzen antolaketan parte hartzen dutelako. Horren adierazle da baita Udaleko hainbat Mahaietan parte hartzen dutela herritarrek: kirola, euskara, prebentzioa, Nagusilan, Berdintasuna, Aniztasuna...

Hala ere, atera da mahaigainera jendearen konpromisoa baxuagoa dela orain eta elkarteetan nolabaiteko errelebo falta dagoela. Elkarteen arteko elkarlana sustatzea elkarteek modu autonomoan egin beharrekoa dela ere aipatu da.

Udala eta herritarraren arteko harremanari dagokionez, informazioaren kudeaketa gardena bermatzea garrantzitsua dela jaso dugu herritarren ekarpenetan, eta horretarako herrigunetik kanporako zonaldeetan, 6.sektorean, kasu, informazio-panelak jartzeko eskaria egin da. Udala eta herritarraren arteko harremana bideratu eta herritarren parte-hartzea sustatzeko honako neurriak garatzea proposatzen da:

- Auzotarrekin informazio-batzarrak egitea, beraien zalantzak, kezak eta ekarpenak jasotzeko.
- Auzo bakoitzean jarraipen batzorde bat egotea, herritarrengandik egin diren ekarpenen egoeraren segimendua egitea. Urtean bi aldiz batzea nahikoa izango litzatekeela aipatzen da.



EUSTAT. *Euskal Estatistika Erakundea.*

UDALMAP. *Udalerri mailako Informazio Sistema.*

JATORRI ANIZTASUNA ZENBAKITAN. <http://udal.aztiker.com/zumaia/eu>

KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA. <http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19130/eu/>

TXOSTENAK.

- Anitzen Sarea - Herritar eta eragileekin garatzeko partaidetza prozesua (Aztiker, 2014)
- Aniztasun eta Elkarbizitza Diskurtso eta Hautemateak (Aztiker, 2014)
- Aniztasun eta Elkarbizitza Ikerketa Kualitatiboa (Aztiker, 2013)
- Aniztasuna sustatzeko eskualdeko proiektua (2014)
- Arau Subsidiarioen azterketa
- Datu soziolinguistikoen bilduma 1986, 2011 (SL Klusterra, 2014)
- Emakume eta Gizonen Berdintasueko I. Planaren ebaluazioa eta II. Plana (Elhuyar, 2014)
- Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostikoa (2009)
- ESEP Zumaia Plan Estrategikoa eta Ekintza Plana (2012)
- Euskara Txanpan Plan Estrategikoa (2014)
- Euskura: euskal kultura Zumaian, azterketa eta sendotzeko proposamenak (Xabier Azkue, 2014)
- Gaztematika txostena
- Geoparkearen Plan Estrategikoa (2012)
- Gizarte Zerbitzuak memoria (2013 eta 2014)
- Herri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa EAEn, 1981-2011 (Iñaki Lurrebaso, 2015)
- Ibilgailuen parkea. Zumaiaiko Udala, 2014.
- Kirol Patronatuaren Estatutuak
- Kiroldegia beharrak (Kirol sailak egindako azterketa)
- Red Empresarial Urola Kosta 2013
- Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko plana (UEMA)
- Urola Kostako Enplegu Plana 2012
- Urola Kostako Enpresen Lehiakortasun Hobekuntza Plana Egur eta Altzari Jardueretan (Urola Kostako Udal Elkarte 2012)
- Urola Kostako Enpresen Lehiakortasun Hobekuntza Plana Elikagaigintza Jardueretan (Urola Kostako Udal Elkarte 2014)
- Urola Kostako Enpresen Lehiakortasun Hobekuntza Plana Galdaragintza eta Soldadura Jardueretan (Urola Kostako Udal Elkarte 2014)
- Urola Kostako Enpresen Lehiakortasun Plana 2011-2012
- Urolako Itsasadarreko babes eta kontserbaziorako plan berezia, 2014 (Ekolur, Mime, mlrua 21, Patxi de Assas).
- Zumaiaiko Agenda 21 (2006)
- Zumaiaiko gazte lokalei buruz egindako azterketa
- Zumaiaiko harrera-gida (Topagunea)
- Zumaiaiko Kirol Instalazioen Berritze Plana (Zumaiaiko Kirol Patronatua, 2013)
- Zumaiaiko Kultura Plana (Prospektiker, 2011)
- Zumaiaiko Udaleko Erabilera Plana (2013)
- Zumaiarren jaiotza lekuen mapa eta biztanleriaren bilakaera (Aztiker, 2012)



ELKARRIZKETAK

Gizarte Zerbitzuak (*Pili Alberdi, Maria eta Jose Eskola, San Juan Egoitza, Beheko Plaza Elkarteko Ordezkariak*), Ingurumena (*Aitor Ibarguengoitia, Geoparkeko ingurumeneko Zuzendaria eta koordinatzailea, Natur taldea*), Hirigintza (*Gorka Arregi*), Kirola (*Antxon Alberdi, Zumaiako Telmo Deun Arraun Elkartea, Itsas Gain piragua taldea, Kirol Patronatua*), Euskara (*Antton Peñalba*), Geoparkea (*Leire Barriuso*), Hezkuntza (*Joxean Etxabe Maria eta Jose Ikastetxetik, Itziar Oikiako Eskolatik, Idoia Agirrezabalaga Herri Eskolatik, Jone Amundarain Institututik*), Herritarra (*Gorka Zabaleta*), Kontu-hartzailea (*Mikel Zubizarreta*), Turismoa (*Esti Iruretagoiena*), Urkome (*Yurre Peñagarikano*), Urola Kostako Udal Elkartea (*Amaia Gurutzeta*), Zumartian merkatarik elkartea (*Maidar Izagirre eta merkatarik talde bat*), Kultura (*Miriam Romanet*); Berdintasuna, gazteria, aniztasuna (*Karmele Gomez*), Malen Etxea.



5. Bibliografia

88

WEB ORRIAK:

Zumaiako Udala. *<http://zumaia.eus/>*

Urola Kosta. *<http://www.urolakosta.org/>*

Diario Vasco. *<http://www.diariovasco.com/>*